



- **Mary Doyle**, preso-ohia: «Emakumeen papera Irlandako borrokaren zutabeetako bat izan da»
- **Rosa Calafat**, filologoa: «Hizkuntza aniztasuna termino hutsala da»
- **Cosina Dannoritzer** *Erosi, bota, erosi* dokumentalaren egilea
- **Telebista** Audientzia neurtzeko sistemak telezaborra bultzatzen du



# IRAK

## Inbasioak utzitako hondamendia

Berreraiki gabeko hiriak / Ustelkeria agintean / Iranen menpe

# ASKO DUZU IKUSTEKO

## Senderos de Euskal Herria Gida



## 55 ibilbide zirkular hiru ordutik beherakoak eta erraz iristeko moduko lekuetan

Gure herrialdea ezagutzeko modu erakargarria;  
kontraste handiko paisaiak eta xarma paregabeko lekuak

**GARArekin, apirilaren 8tik aurrera, zure kioskoan 14,95 euroren truke**

Paisaiaren aniztasunaz eta gure kultura-ondare aberatsaz gozatzeko gida. Bardeetako isiltasuna, Xorroxingo ur-jauzien soinua, mahasti-lurrak, txakolinaren bideak... Euskal Herriko Bidexken Gidarekin, elezahar mitologikoen lekuak ezagutuko dituzu lasai-lasai, kostaldeak eskaintzen dituen ikuspegi zoragarriez gozatuko duzu, eta antzinako elurtegiek, karobiek eta galtzadek gure historiara hurbilduko zaituzte.



**Egilea:** Juan Mari Feliu, mendian espezialista eta ERA (European Ramblers Association) senderismo-elkarteko presidenteordea.

**Obra:** euskal lurralde osoa hartzen du kiribil moduko 55 ibilbidetan. Ibilbideek hiru ordutik beherako iraupena dute, eta erraz iristeko moduko lekuak dira.

**Nori zuzendua:** adin guztietako jendearentzako ibilbideak dira, bakarka zein taldean ibiltzeko aproposak, grafikoekin, argazkiekin eta bidean ikus daitezkeen elementu interesgarriak buruzko oharrekin.



Azaleko argazkia:  
KARLOS ZURUTUZA  
Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera»



**gizarte  
kutxa**  
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko apirilaren 3a, 2.271. zenbakia

## Deabruaren abokatua

- **Tittika Rekalt:** «Egin dezagün iraultza, ezkerrek xurga dezala zakil eta arrautza!». ARITZ GALARRAGA / 4

## Asteko gaia

- **Irak.** Harresi atzeko ahotsa. KARLOS ZURUTUZA / 5

## Pertsonaia

- **Jon Benito:** «Mapa eta iparrorratza mahai gainean dauzkab». SUSTRAI COLINA / 12

## Gaiak

- **Telebistako audientzien neurketa.** Denek onartutako datu distortsionatuak. UNAI BREA / 17

## Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Album hau. BEÑAT SARASOLA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Gipuzkoa, mon amour.** URTZI URRUTIKOETXEA / 22
- **Txandan** Muturrez mutur. AMATIÑO / 22
- **Eliza lo-belarra.** XIPRI ARBELBIDE / 23
- **Zirtak** Eszeptikoaren estrategia. ANGEL ERRO / 24

## Erdiko kaiera

- **Cosima Dannoritzer:** «Sakelakoa urtero aldatzeak ez gaitu zoriontsuago egiten». LANDER ARBELAITZ / 25
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 31
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

## Termometroa

- **Mary Doyle, preso-ohi irlandarra:** «Gose greben garaia oso gogorra izan zen, baina fruituak jaso ditugu». AMAIA ALVAREZ BERAESTEGI / 37
- **66 errektore nuklearren ondoan bizi gara.** DANIEL UDALAITZ / 40
- **Rosa Calafat:** «Katalana ez dago minorizatua, debekatua dago». ARITZ GALARRAGA / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Txernobyl+25: belaunaldi berriak eztabaida gatzetzen. PELLO ZUBIRIA / 48

## Azkena

- **Zientzialariak.** INMA ERREA / 50



# *“Egin dezagün iraultza, ezkerrek xurga dezala zakil eta arrautza!”*

**Tittika Rekalt | Jokalaria**

Eta pastoralak hankaz gora jarri zuen kristaua.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

## **Askatasuna behar duela sortzaileak...**

Gaixotasun mental pixka bat ere bai, ego elegante bat eta, prefosta, sosa, bena hori hantxetan ahazten zaie emaita...

## **Zorionekoa zu, bi trajeria dituzu sortu!**

Aipatü gabe hirugarrena, Xiberoako belardi ederren üztea, Gipuzkoako porlan landen gozatzeko... Ai, ametsaren lana, ait'amaren erranetik barna ibili bagina...

## **Erbesteratu zara, beraz, azkenetan baita Zuberora.**

Nene, ezetz, Gipuzkoara agertü nüz ene xiberoatar ürrinarekin, eta garaieko galtzontzilo “kanguru”ekin, hebenko jendeak pijoikeriak eta yankeekeriak bazter üt ditzan berriz Aitorren potro zaharrei lotzeko. Hori da nire misioa.

## **Baina ihes eginik akabo euskal arima, pastoralak, Mauleko espartinak!**

Errak hi! Eta errügbia? Ahazten dük errügbia, mündüko kirolak gay eta erotikoen, hainbeste gizon giñarritsü algar laztantzen lokatzaren erdian! Zer beroaldiak!

## **Zuberora hiltzean, nora joango dira Hegoaldeko superabertzaleak?**

Errügbia egitera, potro eta barrabil ikutzera... Betidanik esküindar nagusia izan da langilearen xurgazale... Egin dezagün behinkoz iraul-

tza, ezkerrek xurga dezala zakil eta arrautza!

## **Pozik izango duzu Zuberoko Turismo bulegoa...**

Xiberoaren trajeria da ere, euskaditarrek beti ari zaretela gütaz plañitzen. Astebürü bat Irati eta Kakueta, eta hara, gütaz iritzi emaita badatorrela Vaskongadas hori! *Hombre*, guk zerbait ba ote diogu zuen kirol adikzio tonto horretaz?

## **Badaezpada, ez dizut Matalaz aipatuko.**

Matalaz, beti Matalaz, azkenean zer dakigü hartaz, apez bat zela? Ez ote dea aski eüskal herri hontan? Eta gainera ze gudari txarra... Lau soldado menderatü eta kükürükü! Zortzi agertü eta lekütü!

## **Tira, orain fikziozko film luzeak egiten dira zubereraz: 10.000 ikusle gehienik.**

Gehi ezker abertzale güzia! Ijaaaaaa! Guri fama, guri neskak, guri Honolülü!

## **Txantxa ugari, baina diru eskean gero...**

Sosak gaüza hanitx permetitzen dütü, bena ametsak ez! Eüskadik dio: egin dezagün otoitz; gük: egin dezagün amets! Bainen, eman dirua hala ere Xiberoari, ok?

## **Joan aurretik: zer eguraldi Zuberora aldean?**

Gäiak beltz, egünak argi. Sohütan Aranbeltz, Larrainen Bagargi. ■

• ASTERKO GAIA •

Irak

# Harresi atzeko ahotsa

Irakeko inbasioak zortzi urte beteko ditu udaberri honetan. Washingtonek bere azken tropak urte amaieran erretiratuko dituela iragarri du. Diotenez, segurtasuna hobetu du eta demokrazia bidean da arabiar herrialdea. Berta-bertatik, baina, oso desberdina da ikuspegia.

Testua eta argazkiak:  
**KARLOS ZURUTUZA**



“ZORTZI URTE pasa dira inbasiotik baina nekez ikusi dugu aldaketarik gurean”. Bagdadeko Tahrir plazan bildu diren milaka lagun haserre daude. Tunisiako matxinada piztu zenetik, ia egunero atera dira irakiarrak manifestaziotan; Turkiako mugako Zaho herri kurdutik, Pertsiar golkoan dagoen Basoraraino.

Helburua, baina, ez da 20, 30 edo 40 urte boterean eman dituen tirano bat kanporatzea. Ugariak bezain oinarritzkoak dira egungo irakiarren eskaerak: “Askotan hiru orduz baino ez dut argindarra etxean eta, batzuetan, bat ere ez”, dio Hamidek. Morthadaren kezka nagusia, aldiz, ura da. Iturrikoa ez da edangarria eta berea bezalako familia txiroek ezin dute botilakoa eskuratu.

“Begira gure inguruko eraikinetako lehergailu eta bala zuloei. Bagdadeko erdigunearen itxurari erreparatuta, pentsa liteke gerra atzo bertan amaitu zela”; Fatimak arrazoi du. Bagdadeko erdiguneko hainbat kalek 80ko hamarkadako Beirut ekartzen digute gogora. Ez al zituen Irakek munduko petrolio erre-serba handienetakoak? Non dago diru hori guztia?

Tigris ibaiaren mendebaldeko ertzean “gune berde”a dago, herrialdeko agintarien

gotorlekua. Porlanezko murru horien babesean, besteak beste, irakiar parlamentua eta ministerioak daude, baita AEBek munduan duten enbaxadarik handiena ere.

“Ustelkeria Irakeko arazo nagusi bilakatu da egun, terrorismoaren aurretik”, dio Leyla Hassan-ek. Parlamentario kurdu honen uste-tan, egungo matxinadek tropak aurren erretiratzeko Obamaren plana aldaraz dezakete.

“Jakina ustelkeria arazo larria dela, baina herriak bere osotasunean ulertu beharko luke arazo hau. Diru gehiena azpi-kontratazioetan galtzen da, baina horiek eskuratzen dituzten enpresak politikari nagusienak dira maiz. Gauzak horrela, arazoa ukitze hutsak gobernu krisia eragin lezake, ia berehala”, dio Parlamentuko bozeramailearen laguntzaile Galal Lawranik.

Kazetari independentea den Hadi Jalu-k ikuspegi zabalagoa dauka: “Gobernua ustelkeriaren erruduna eta onuradun nagusia bada, herria konplizea da. Gobernuko edozein bulegora zoazela ere, beti irudi bera topatuko duzu: gizon bat bere mahaian eserita telebista erraldoi bat aurrean duela; inguruan, beste hiruzpalau, tea edaten eta zigarroak erretzen. Horiek denak Gobernuaren soldatapeko langileak dira. Iraken hiru milioi funtzionario

Irakiar Haserre  
Eguna Bagdaden  
(otsailak 25).





Ezker-eskuin, goitik behera: Fatima (manifestaria); Leyla Hassan (parlamentaria); Hadi Jalu (kazetari independentea); Mahmud al-Issawi (Falujako polizia-burua); Rafe Mishin (tribu buruzagia); Bahaa al-Kalafi (politikaria); Abdulgaith al-Hassan (apaiz xiita); Talib al-Hasnawi (al-Sahwako bultzatzailea).

daude: poliziak, soldaduak, administrazioa langileak... Urteko aurrekontuaren %75a beraiei ordaintzeko bideratzen da eta, hala ere, Irak oso aberatsa da. Hein batean, Gobernuak herria erosi egin du lapurretan jarraitu ahal izateko". Horrelako baieztapen ausartek Hadi Jaluren lantokia txikitzea eragin zuten joan zen otsailean. Horixe Gobernuaren berehalako erantzuna.

### "Al-Kaeda guk gainditu dugu!"

Estatubatuarrek diotenez, atentatuak eta eraso odoltsuak nabarmen jaitsi dira azken 18 hilabeteotan. Halakoetan errealitatea eta gerra-propaganda bereiztea zaila izan arren, baliteke egia izatea.

Irak mendebaldeko Anbar eskualdea matxinatu sunien nahiz al-Kaedaren gotorlekua izan zen urtetan. Ramadi, Tikrit edota Faluja izenek zirrara sortu ohi zuten inbaditzaileen belarrietan. Faluja izan zen, hain juxtu, amerikarren erasorik bortitzena jaso zuena, 2004ko azaroran. Washingtonen arabera, "integristen gotorlekua" zen. Mendez "200 meskiten hiria" izenez ezaguna zena, Irakeko "Gernika" bilakatu zen bat-batean. "Erregimenaren jarraitzaile

**"Gaur egun amerikarrek ez didate beldurrik ematen, bai ordea irandarrek. Gero eta handiagoa da euren presentzia herrialdean, beti gehiengoa diren xiitei laguntza ematen"**

**RAFE MISHIN, AL-SAHWA**

sutsuak ginela zioten, baina gurea zen Saddamen estatua bakar bat ere ez zuen hiria", dio Mohammed Abdulkakkerrek, 29 urteko ingeniari falujarrak.

Bagdad ez dutela berreraiki agerikoa da, baina Falujan hondakin asko jasotzeko daude oraindik eta are krudelagoak dira hondamendiaren lekuko mutuak. Arropa denda bat zenaren arrastoen artean, manikiak ikus daitezke.

Besoak, hankak edo burua galdu dituzte; duela zazpi urte hemen bizi izan zenaren metafora garbia bezain gordina.

"Falujan oso une gogorak igaro ditugu, baina apenas izan dira erasoak azken bi urteotan. Bagdaden ez bezala, hiri barneko ejertzitoko kontrol postuak desagertu dira", dio bertako polizia buru Mahmud al-Issawik.

Baina irakiar polizia eta ejertzitza ez dira, inondik ere, Anbar eskualdeko segurtasuna bermatu dutenak. Ezin Bagdadera bueltatu al-Sahwa ("esnatzea", arabieraz) taldeko ordezkariak elkarrizketatu gabe. Matxinatu suni hauek estatubatuarren kontra borrokatu zuten hasieran, baina bat egin zuten inbaditzaileekin gero. Al-Kaeda alde bien etsai komuna bilakatu zen.

Askotan traidoretzat jo dituzte al-Sahwako kideak. Beraiek, jakina, beste ikuspegi bat daukate. Mugimendu honen bultzatzaileetako bat izan zen Talib al-Hasnawi jauna. Honela gogoratu du tribu buruzagiak hasieran ezinezkoa zirudien Washingtonekin egindako aliantza: “Amerikarrek Irak inbaditu zutenean edonorekin batzeko prest geunden euren kontra borrokatzeko. Al-Kaeda gure alde borrokatzeko prest agertu zen eta hala egin zuen gerraren lehenbiziko bi urteetan. Baina gero gureak ere akabatzen hasi ziren jihadistak; irakasleak, ordezkari politikoak, tribu buruzagiak... Nik 23 lehengusu galdutituen haien eskuetan. Arazoa zera zen, Islamaren ikuspegi ezberdinak genituela. Guk ez genituen Erdi Aroko garaiak berrezarri nahi hemen, Anbarren”, dio al-Hasnawik, durbante gorria buruan eta urre hariz jositako txilaba beltza soinean.

“2005ean elkartu ginen lehen aldiz amerikarrekin. Ammanen (Jordania) izan zen. Armak eta entrenamenduaren truke al-Kae-

daren aurka borrokatuko ginela esan genien. Hasieran ez ziren fio, baina denborak arrazoia eman zigun. Guk gaititu dugu al-Kaeda, ez amerikarrek”, dio al-Sahwako bultzatzaile ere den Rafe Mishinek. Dioenez, bere lau anaia akabatu zituen al-Kaedak.

“Gaur egun amerikarrek ez didate beldurrik ematen, bai ordea irandarrek. Gero eta handiagoa da euren presentzia herrialdean, beti gehiengoaren diren xiitei laguntza ematen. Xiiteen eta sunien arteko gerra zibila piztu liteke etorkizun hurbilean”, beldur da Mishin.

Saddamen gainbeheraz geroztik, Irakeko suniek eurenaganako diskriminazioa salatu dute maiz. Nekez aurki daiteke eurentarrik, ejertzitoan, segurtasun indarretan edota administrazioan goi karguetan, besteak beste.

### Teheranen itzala

Arabiar xiiteen portzentajea handitzen doa hegoalderantz jaitsi heinean. Basoran, hain juxtu, %90era igotzen da Islamaren sekta honen jarraitzaileen kopurua.

## Kirkuk, irakiarren arantza nagusia

Kirkuk Irakeko laugarren hiria da eta herrialdeko petrolio erreserba handienetakoak ditu.

1980ko hamarkadan, Saddamen erregimenak hamar milaka kurdu, turkmene eta asiariar biztanle kanporatu eta beste hainbeste arabiar eraman zituen horien ordez. “Ekarritako” gehienak Irak hegoaldeko xiita txirotak ziren. Baath alderdiak nazio zuzenketatzat hartu zuena, arabiarren prozesu hutsa izan zen beste askoren begietan.

Baina Saddamen gainbeheraz geroztik aldearantzizko prozesua hasi da, eta kanporatutakoak etxerako bidea hartu dute. Egun Kirkukeko populazio errolda egiteke dago oraindik eta ezinezkoa da, beraz, hiri honen estatua erabakiko duen erreferenduma burutzea. Kontsulta inoiz egitekotan, hiru aukeren artean bozkatuko da: Kirkukek Bagdaden kontrolpean jarraitzea, eskualde autonomo gisa eratzea edo Kurdistangoan sartzea. Arabiarrek ez ezik, bertako turkiar jatorriko populazioak –Kirkukeko hirugarren taldea kopuruz– ez luke begi onez ikusiko Kurdistango Eskualde Autonomoan integratzea.

Kirkukeko turkomandar bat etnia honen banderaren alboan.





**Faluja (irudian) izan zen 2004an kalte handienak jaso zituen hiria.**

Irakeko bigarren hiria den Basorak herrialdeko petrolio erreserba handienak ditu; bestetik, bere kokapen geografikoa garrantzitsua da, Kuwait eta Irango mugen artean, Irakeko kostalde txikian. Azken urteotako gerrek eta petrolioaren ustiaketa basatiak porrot ekologikoa eragin dute bertan. Airea eta itsasoa, lurra, bertan bat egiten duten Tigris eta Eufrates ibaiak... Dena kutsatuta, hilda dago Irak hegoaldeko mutur honetan.

Iranen kontrako gerra zortzi urtez luzatu arren (1980-88), badirudi gauzak nabarmen aldatu direla. Ez da harritzekoa, beraz, Irani soilik eskainitako “nazioarteko” merkatal erakustaldi batekin topo egitea. “Iran eta Iraken arteko harremana ezin hobea da gaur”, dio bertan Irango kontsula den Mohamed Baghbanek. Egia ala ez, hidrokarburoez besteko produktuen merkatu nagusi bilakatu da Irak Iranentzat. Bizilagunari falta zaizkion ia produktu guztiak saltzen dizkio Teheranek, bai eta herrialde arabiarrek falta ez dituenak ere.

“Berebiziko barazkiak eta fruituak genituen hemen, Tigris eta Eufrates ertzetako lurretan. Egun, Irandik ekartzen da dena, izoztuta. Produktu oso merkeak dira eta guk ezin dugu

**Azken urteotako gerrek eta petrolioaren ustiaketa basatiak porrot ekologikoa eragin dute Basoran. Dena kutsatuta, hilda dago Irak hegoaldeko mutur honetan**

lehiatu haien kontra. Ondorioz, mendez hezeak eta emankorrak izandako lurrak, idor eta abandonaturik daude egun”, kexu da Abdulsattar Hafiz. 50 urteko gizon honek bere arbasoek mendenatzen landutako lurrak utzi behar izan zituen duela bi urte. Besterik ezean, errepideak asfaltatzen aritzen da gaur.

Eta nekazaritzarekin gertatu bezala, Iraken ekoiztutako gainontzeko guztiak ere jai du bizilagunaren konpetentziaren aurrean. Hala, porlan eta adreiluen fabrikak dira Iraken oraindik funtzionatzen duten bakarrak.

Kezkagarria izan arren, produktu ororen inportazioa baino arazo larriagoak ikusten ditu Amirrek. 25 urte zituela alde egin zuen Iraketik, Iranen kontrako gerran borrokatu behar ez izateko. 55 urterekin bueltatu da bere jaioterriara, oporretan. Etsita dago: “Urte gogorrak izan arren, Basoran erraz atera nitekeen lehen nire emaztearekin afaltzera, dantza egitera, garagardo bat edatera... Orain, pentsaezina da horrelakorik. Gobernua Islam xiitaren bertsio erradikala ezartzen ari da eta norbanakoan askatasunak gero eta murriztagoak dira”, kexu da Suedian bizi den irakiarra.



Bahaa al-Kalafi, Irakiar Nazio Batasuneko alderdiaren Basorako buruzagia, bat dator. 1991n klandestinitatean ezarritako alderdiak, erlijio eta Estatuaren arteko banaketa du ardatz nagusi. Dirudienez, gero eta erronka

**Bertakoak eta kanpotarrak, Basoran.**

## Okupazioaren kontrako borrokalaririk sutuena ote?

Gobernuan posiziorik ez duen arren, Irakeko buruzagirik handienetakoa da Moqtada al-Sadr. Aiatolah baten semea den al-Sadr-ek ospea jaso zuen 2004an, estatubatuarren kontrako matxinadari ekin zionean.

Babes handiena Bagdadeko Sadr City auzo txiroan eskuratu ohi du al-Sadr-ek historikoki. Bertakoak ziren, hain zuzen, berak bultzatutako Mahdi talde armatuko kide asko. Gerlariok oposizio bortitza egin zieten amerikarrei gerraren lehenbiziko bost urteetan. Baina Kerbala hirian berebiziko erasoak jasan ostean, al Sadr-ek armak uztea eskatu zien 2008ko abuztuan.

2010eko hauteskunde orokorretan, "amerikar inbaditzailen kontrako bozka" eskatu zien al-Sadr-ek irakiarrei. Sadr alderdiak 40 eserleku lortu zituen Parlamentuan, Irakeko alderdi "bisagra" bilakatuz. Nuri al-Malikiren zerrenda bigarrena izan arren, Sadr alderdiarekin egindako koalizioari esker lortu zuen boterean mantentzea egun lehen ministroa den al-Maliki-k.

Aurtengo urtarrean, Moqtada al Sadr-ek diskurtsoa eman zuen Najaf hirian eta han AEB eta Israel "Irakeko etsaitzat jo zituen. Naomi Klein analista estatubatuarrek dio Moqtada al-Sadr amerikarrek Iraken duten etsairik handiena dela. Hainbat adituren ustetan, Iranen ustezko esku sartzearen eragile nagusia ere bada egun 38 urte dituen buruzagi xiita. Al-Sadr Iranen dago egun, 2008an hasitako aiatolah izateko ikasketak egiten.

handiagoa bilakatzen ari da hori: "Ba al zenekien Irango enbaxadoreak hautes-ikastetxeak bisitatu zituela joan zen urteko hauteskundeetan? Hori debekatuta dago munduko edozein herrialdetan, baina hemen inolako arazorik gabe egiten da", dio al-Kalafik.

Buruzagi politikoaren arabera, Irango eragina politika eta kultur arloetatik harago joan daiteke: "Xiiten eta sunien arteko tentsioak elikatu nahi ditu Teheranek. Horretarako talde armatuak entrenatu eta hornitzen ditu, Iraken eraso dezaten. Hemendik kilometro eskasera dagoen muga ia irekita dago eta miliziarrek ez dute inolako oztoporik aurkitzen aldetik aldera mugitzeko".

### Izan zitekeenaz nostalgia


Bagdadeko Tahrir plazan, azken asteotako ohiko irudiarekin egiten dugu topo. Ostiral eta larunbatero (musulmanen asteburua), erraz bil litezke mila lagunetik gora. Abdulgaith al-Hassan dugu manifestariekin bat egin duen apaizetako bat: "Amerikarren okupazioaren ostean, irandarrena datorkigu orain. Horrek ere biziki kezkatzen gaitu", dio klerikoak, aldi berean gogoratuz denon etorkizuna "Alaren eskuetan baino ez dagoela".

Abdul Jabar gazte langabetuak, ordea, iraganari begiratu dio maiz azken asteotan. "Tunisian eta Egipton herriak bat egin eta tiranoak kanporatu ditu. Eta gauza bera egin izan bagenu guk Saddamekin? Pentsa nolako sufrimendua saihestu genezakeen...". ■

**argia.com** Bidaiaaren diaporama eta Iraki eta Kurdistan buruzko erreportaje gehiago, gure webguneko Bidaia Kanalean.

# Ertzeko zatiak

## Jon Sarasua



### Ertzeko zatiak

Jon Sarasua



**Hego hemisferioan izandako lan bidaietan, bost urtetan zehar hurbileko lankideentzat idatzitako testu laburren bilduma da.**

Hondartzan bildutako egur puska, harri eta itsas-hondakinak bezalako zerbait dira... "Eta etxera daramatzazu, batzuk bakarrik. Ez dute areetan zegoena errepresentatzen. Ez dute hondartzan gertatutakoa biltzen. Halaxe dira testu pusketok, lagunentzat tarteka bildutako zatiak".

## Jon Benito

# «Mapa eta iparrorratza mahai gainean dauzkat»

Lo orduak 85.896, dioptriak 1,5 + 2,5, lan egun kotizatuak 1.679, 444 kilo zabor urtero, %33 basque... Eta bulkadak bata bestearen atzetik.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

**Zenbateraino idazten du bakoitzak bere historia?**

Ez dut esango egileak bere biografia idazten duenik beti, baina interesgarri zaion tema edo ikuskera bat ia beti agertzen du. Liburu bat idazteari zeure bizitzako ordu eta buruhausteak eskaintzen dizkiozunean ere, nahi eta nahi ez eskaintzen diozu zure bizitzaren zati bat. Hor hasten da literatura bizitzara eta bizitza literaturara ekartzeko borroka. Irakurle bezala, askotan ekarri dut literatura nire bizitzara, elikatzen ninduelako, une hartan nire egunerokoak ez zeuzkan grazia eta nortasuna ematen zizkidalako. Alderantzizko prozesua izan da *Bulkada*-rena. Literatur gaiak errealitatera ekartzeaz gain, nire bizitzaren zati batzuk literatura bihurtu ditut.

**Nondik dator zure burua etengabe definitzeko joera nekagaitza?**

Artean liburua idazten ari nintzela, autoan nindoala, “*nola beldu naiz ni bonaino?*” entzun nuen Anariren kantu batean. Orduan jabetu nintzen liburuaren arkitektura oraindik garbi ez eduki arren, nortasun bat berriz sortzeko aukera ematen zidala honek. Nire ibilbide guztian Jon Benito bakarra izan da, baina ezaugarri ezberdinak izan ditu, etenik gabe aldatzen joan da, eta liburu honekin ezaugarri berriekin agertzeko parada neukala ulertu nuen. Orain artekoaren balantzea egiteko moduan nengoen, baina naizena eta izan nahi dudana islatzeko parada ere banuen. Horregatik da gertatu ez zena eta gertatu ez zitzaizdana ere interesgarria. Askatasunaren bidea kontraesanen zerrendatzea dela dio Susan Sontag-ek, horri zor diogula etengabeko “zer

naiz ni?”, “nor naiz ni?”, “nondik nator?” galdera sorta. Niri ere, nortasuna eraikitzeko, ezaugarri batzuk eman egin zaizkit, beste batzuk aurkitu egin ditut, eman zaizkidan eta aurkitu ditudan zenbait utzi egin ditut beste batzuk hartzeko... Bide hori, aukeren arteko gatazka hori, kontatzen du, azken batean, *Bulkadak*.

**Bidearen puntu honetan, “ezkerzalea”, “argala”, “ateoa” eta “heterosexuala” zarela diozu.**

29 urte ditut eta nire ezaugarri batzuk aldatu egin dira denboran zehar: ez naiz hain erradikala nire iritzietan, bestearen presentziaz kontzienteago naiz... Lau adjektibo horiekin definitzen naizenean besteen aurrean definitzen naiz baina. Nik nire burua definitu beharko banu modu pribatuan, beste izenlagun batzuk erabiliko nituzke agian; baina liburuan, oraindik, pertsonaia berri hori jendaurrean aurkezten ari naizenez, gizartearen lau sailkapen nagusienetan kokatzeko koordinadak markatzen ditut. Hori hala, pertsonaia aditzak ezaugarritu behar duela uste dut: eguneroko bizitzan ere egiten dugunak definitzen gaitu, ez daukagun itxurak edo dena delakoak. Horregatik saiatu naiz ahalik eta definizio gutxien ematen liburuan, galderak egiten baina ez epaitzen. Ez dut ahalegin berezirik egin pertsonaia zer nolakoa den deskribatzen, ekitzen bidez agertu nahi nituelako agertu beharrekoak.

**Oso ekitza arrunt eta sinpleak dira gehienak.**

Baina era berean sakontasuna eta mamia daukatenak, nire ustez. Lagunez mintzo zara baina lagunak gurutzatuta daude politikare-



## Nortasun agiria

1981eko maiatzaren 24an sortu zen Zarauzko Azken Portun. Historian lizentziatua, medio askotako kolaboratzailea, *Vladimir*-en txertoak areagotuzion literaturaren sukarra. 2001-ean argitaratu zuen *Aingurak Erreketan* (Susa) bere lehen poema liburua, eta *Bulkadarekin* (Susa) itzuli berri da.

kin. Ihes pertsonal bati buruz hizketan hasten zara eta mundua agertzen zaizu bere sustai eta adar sozial, ekonomiko eta kulturekin. Horren harira, ez nuen *Bulkada* Jon Benitoren autofikzio edo autobiografiatzat hartzerik nahi, liburuak ez baitauka baliorik horrela irakurriz gero. Nire antzeko esperientziak izan dituen, nire adin inguruan dabilen jende multzo baten kronika, testigantza edo ispilua izan behar du liburuak, porrot egin ez dezadan. Horregatik kontatzen ditut maitemintzea, desmaitemintzea, norbere burua berraurkitzeko lanak abiatzea eta berriz galtzea bezalako gaiak. Erreferentziak erreala dira, hezur-haragizko hitzak agertu nahi nituen papelean, ukitzeko moduko zerbait sortu nahi nuen, irakurleak bere burua bertan islatuta ikusteko kontuak, emoziora horrela bakarrik helduko nintzela uste bainuen. Mamiak mami eta azalak azal, arte guztietan emozioa baita bilatzen dena.

**Nola gogoratuko du historiak zure belaunaldi hori?**

Ez dakit ez garen, oro har, “belaunukaldia” izango: eskubide eta oparotasun garaian jaio eta porrot egin zutenena. Iruditzen zait, ikasketa aldetik belaunaldirik prestatuena izan eta jakintza aldetik formatuak egon arren, asko galduta egon garela gutaz espero zenaren eta eman genezakeenaren arteko amildegian. Esaterako, politikoki oso belaunaldi anfibioa gara: tradizio batetik gatoz, mezu, ideologia eta iruditeria historiko baten jarraipena txertatu digute, baina aldi berean balore horien aldaketa bizitzen ari gara eta ez dakigu bateko edo besteko garen edo izan nahi dugun. Balore aldaketa horrek eragina dauka egungo kultur panoraman ere. Ez da kasualitatea *Errantsak* antzerki-obran behin eta berriz zauri horretan hatza sartzen aritzea, adibidez. Politikoki, gauza bera. Kultura militantearen heriotzaz mintzo gara, baina ez al dago zuzenki lotua ahalegin bat egitearen, saiatzearen eta sakrifizioaren kulturaren gainbeherarekin? Gure belaunaldia da trantsizio hori ondoen ordezkatzeko duena.

**Politikaz ari gareno, pertsonala bezain ez-ohikoa da herri honen gatazka agertzen duzun modua.**

Azken urteetan izugarri areagotu zait giza-faktorearen presentzia gatazka politikoak

**“Kultura militantearen heriotzaz mintzo gara, baina ez al dago zuzenki lotua ahalegin bat egitearen, saiatzearen eta sakrifizioaren kulturaren gainbeherarekin?”**

**“Zaila da ideologiaz eta eztabaidez modu teorikoan aritzea, eta liburuan horregatik diot pertsonen hitz egin nahiko nukeela, baina herri honetan oso zaila dela pertsonen mintzo garenean politikaz ere ez hitz egitea”**

ulertzeko orduan. Hitz egiten dut ideologiaz ere, aurrera eraman beharreko gatazka proiektuez, baina jendea galtzeak sortutako zauriari ezin diot alde egin. Liburuan argi eta garbi markatzen da zer tradizioetatik datorren pertsonaia, non jaiotzen den, ze urtetan, urte horretan zer gertatzen den, baina gero pertsonaia hori erabakiak hartzen hasten da. Ikusten du Lasa eta Zabalaen gorpuak ekartzen dituztela Hondarribiko aireportura, bere buruari galderak egiten dizkio, bonbak jartzen dituzte, jendea hiltzen da, eta zerbaiten kontzientzia hartzen du. Beranduago jabetzen da, katramila horren erdian marra asko egon arren, berari marren alde batean edo bestean egotea egokitu zaiola, hautu kontziente eta inkontzienteengatik. Aurrera joan ahala, bere burua kartzelara joateko arriskuan ikusten du, gau batzuetan izua pasatzen du, bere lagunak espetxera eta sasira agurtzen ditu, eta horrek hautu kontzientetik giza-faktorerako aldaketara darama. Testuinguru horretan zaila da ideologiaz eta eztabaidez modu teorikoan aritzea, eta liburuan horregatik esaten dut pertsonen hitz egin nahiko nukeela, baina herri honetan oso zaila dela pertsonen mintzo garenean politikaz ere ez hitz egitea.


**Zuretzat politika gatazka baino zerbait gehiago ez ote den...**

Oso liburu politikoa da *Bulkada* zentzu horretan. Bizitzeko modu batez mintzo da, askatasun pertsonalaren kontraesanez, besteari eragiteko moduez, lanaz, diru beharraz... Erabaki asko dago poemotan, eta deliberoez ari garen heinean politikaz ari gara, nahiz eta askotan

politikaren zentzua legebiltzar eta gatazkara murrizten dugun. Niretzat, egunean-egunean garena aurrera eramateko hartzen ditugun erabakien batuketak da politika: harreman erdua planteatzea, zure bizimodua zehaztea, lan-harremanak aukeratzea, edo balore batzuk zeure egin eta horiekin kontsekuentea izatea ez dago udalbatzarretan, legebiltzarrean edo alderdi politikoetan, baina politika da. Horregatik daukat politika oso positibotzat.

**Eta familia?**

Proiektu komun bat aurrera ateratzeko grina ote da familia batzen duen indar ezkutu hori? Seme-alabak egoki hezteak, egunerokoan ahalik eta arazo gutxien izateak, hil artean ahal bezain zoriontsu izateko orekari eusteak



batzen du familia, nahiz eta bertako kideen artean mundu ikuskera zeharo ezberdinak egon. Era berean, familia barruko ezinikusiak itzelak izaten dira. Oso estamentu konplexua da. Batetik, emanda datorriz, ez duzu aukeratzeko, eta bestetik, ez dakizu zure proiektu berriak familia kide horiekin aitzina eramaten ahalko dituzun ala ez. Oso gai korapilatsua da, hein batean seme-alabek aurrera egiteko metaforikoki gurasoak hil behar dituztelako. Horregatik diot amari buruzko poemari, beregandik alde egin behar dudala berarekin berriz aurkitzeko, zillborrestea apurtu behar dudala harreman egokia mantendu ahal izateko. Gatazka da beste koordenada batzuetan harmoniazko harreman bat eraikitzearen lehen pausoa. Esaterako, nire ama hizkuntza euskarra da, aitarena gaztelania, eta familia bat osatzen baldin badugu, nola artikulatzen ditugu elkarrekin komunikatzeko hizkuntzak? Nola egiten dugu biok bat? Horrek talka sortzen du gure artean, izan nahiko genukeenaren artean, eta nahi eta nahiez gure nortasuna moldatzen du.

#### Terapeutikoak dira hitzak?

Korapiloei hitzak jartzea ariketa ezinbestekoa da niretzat. Zentzu horretan, izugarri gustatzen zait Annie Ernaux. Sentimenduez edo abortua bezalako gaiez ari denean ere, zehatz

eta sinple idazten du, eta liburua idazten ari nintzela inbidia sentitzen nuen, nik ere kontatu nahi nituelako bizi nituen une nahasiak ahal bezain sinple eta ahalik eta ñabardura gutxien galduta. Ariketa horrek asko laguntzen du gertatzen dena ulertzen, zuk hori nola bizi duzun konprenitzen, edo zu gertatzen horiez nola jabetzen zaren ohartzen. Hitzak errealitatearen errauntsak dira, funtsean. Egia da ñabardura asko, detaile asko, galdu daitezkeela hitzetan, ezin adierazi ahal dituzulako edo ez duzulako asmatzen, baina besteei gurea adierazteko daukagun tresnak dira, eta behartuta gaude ahal bezainbat



## AZKEN HITZA

### Entzun

"Eslogan eta kanpainetako lelo guztiak baino eraginkorragoa iruditzen zait eguneroko lanaren mekanika. Beti bizi izan naiz nire ideologia eta bizi-balorerekin bat ez zetozen alderdiek gobernatzen zituzten udalerrietan eta, ez dakit horregatik-edo, oso mesfidatia izan naiz erakundeekin. Dena den, jabetzen naiz duten indarrak, eta horregatik diot politikaren erronka nagusia politikariak herritarren benetako ordezkariak izatean datzala, eta horretarako herritarri entzun egin behar zaiola, bere kezkek aintzat hartu, irtenbideen parte sentiarazi. Horixe da azken urte luzeetan politikari eta mugimendu sozial zenbaitek egin ez dutena, eta horregatik iruditzen zait ezinbestekoa elkarriketa hori berreskuratzea. Politikak ere 2.0 izan behar du, izango bada".



zorroztera esan nahi duguna ahalik eta modu zehatz, zuzen, eta osoenean esateko.

Zertarako hartu hainbeste lan korapiloak askatzen, "egunen batean garai hauek ere irrigarri eta friboloak irudituko bazaizkigu"?

Hautzarora edo nerabazarora begiratzen dudanean, eskolako gorabeheraz pentsatzen hasten naiz, eta ohartzen naiz hurrengo egunik ez zela egongo iruditzen zitzaidala batzuetan. Baina gertatutakoei perspektiba historiko apur batekin erreparatuz gero, jabetzen naiz mila arazo larriagotatik atera naizela gerora, eta horrek laguntzen dit gauzei neurria hartzen. Orain badakit hau gertatzen ari dela, baina era berean kontziente naiz egun edo hilabete edo urte batzuk pasata urak bere onera etorriko direla eta giltzurruneko harria txikitzen doan bezala hori ere xehetzen joango dela, iraganeko gertakari bat gehiago bihurtu eta desagertu arte egunen eta urteen joanean. Nire duda da, gaur hain garrantzi-

tsuak iruditzen zaizkigun kontuak bihar ez ote diren txikieria edo iraganeko kontu ahazkorak izango. Ez ote ditugun gogoratu-ko soilik nobelak idazteko. Eta ez dakit hori ona edo txarra den.

**Ez da duda txarrena datorrenari heltzeko.**

Nik ere garai defentsibo batetik aurrera egiteko garai batera pasatzen ari naizen sentsazioa daukat, eta zorionez, sentsazio horrek sentimendu kolektibo batekin bat egiten duelakoa nago. Aurrerapausoak emateko gogoia daukat, egiten dudana modu ziurragoan egiteko grina, eta ez idazterako orduan bakarrik, baita eguneroko bizitzan ere. Ziurtasunez, erabakimenez, konbentzimenduz eta zer nahi dudana jakinez ibiltzeko borondate eta prestutasunari eutsi nahi diot. Mapa eta iparrorratza mahai gainean dauzkat, eta beste batzuetan iparrorratzik eta maparik gabe mugitu banaiz ere, orain badauzkat, eta nire helburuetara heltzeko erabakimena dut. ■



## Barakaldo

Liburu azoka apirilaren 1etik 10era, herriko plazan

### EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi irakurriz!*


# Denek onartutako datu distortsionatuak

Milioika euroren joan-etorria telebistako audientzi datuen menpe dago. Datu horiek biltzen dituzten audimetroak gutxiegi direla salatu izan da askotan, baina audientzien jolasean dabiltzan guztiek diote kopurua nahikoa dela, eta onartu egiten dituzte datuok. Badakite, hala ere, sistemak arrakala ugari dituela.

UNAI BREA

HEDABIDE GUZTION kontsumitzaile kopurua neurtzen da etengabe, baina bistan da telebistari buruzko datuei askoz garrantzi handiagoa ematen zaiela. Eta ematen zaie, badutelako. Gogoan hartu besterik ez dago, esaterako, azken urte bietan zenbat hitz egin den ETBren audientziatz; hedabide publikoen kasuan, eztabaida politikorako argudio bilaka daiteke nork bere etxean zein botoi sakatzan duen telebistaren aurrean paratzen denean. Baina batez ere, audientzien garrantziak diruarekin zerikusia dauka, ondoko datu xumeak erakusten duenez: iaz, Espainiako kate pribatu handi biek, Telecincok eta Antena 3-k, 794,6 eta 687,7 milioi euroko sarrera garbiak izan zituzten publizitate-salmentagatik, hurrenez hurren.

Telebista pribatuak negozioa dira, eta negozio horren funtsa ikusleak saltzea da. Izan ere, horixe da saltzeko daukaten gauza bakarra: gu. Eta telebista publikoak ez dira negozioa, baina ez dute publizitatea musutruk ematen. Pantailaren beste aldean zenbat jende dagoen jakitea ezinbestekoa da, baina kopurua ezagutzea ez da nahikoa. “Zenbat” bezain garrantzitsua da “nor”; iragarleentzat ez dira berdin 8 urteko mutila edo 80ko amama. Telebista-kateekin kanpainak negoziatzen dituztenean, ikusle kopuruak ez ezik,



UNAI BREA

“Nor dago hor?”, galdetzen du audimetroak. Telebistako audientzia datuak, batez ere, publizitatea hartzaile egokiari iristen ari zaiola jakiteko behar dira.

ikusle horien soslaiak ere “erosten” dituzte.

Hainbeste diru mugiarazten duten datuak neurtzeko audimetria erabiltzen da. Sistema bera da, edo oso antzekoa, European eta herrialde garatuetan oro har, eta normalean enpresa independente baten esku egoten da. Espainiako Estatuan, Kantar Media da enpresa hori. Agian ezagunago duzue lehen-go izena: Sofres. Frantziako Estatuan, berriz, Médiamétrie-ren eskuetan dago neurketa.

Guztiok zer ikusten dugun jakiteko, biztanleriaren zati txiki bat hartzen da eredu. Haien gustua, denona omen. Nahita diogu lagina txikia dela, sarritan kritikatzan baita txikiegia izatea, baina orobat onartuta dago. Kateek, iragarleek, telebistarekin zerikusia daukaten edozelango elkarteek... Denek ematen dute ontzat audimetroaren sistema, imperfektua dela aitortu arren.

“Estatistikaren ikuspuntutik audimetro kopurua egokia da”, diosku Alejandro Peralesek, Espainiako AUC ikus-entzule elkartearen presidenteari, “edozein inkestatan erabiltzen den laginaren tamaina bera du”. Ezaguna da EAEko audimetro kopurua (350), baina ez Nafarroakoa, telebista kate propiorik ez duten autonomia erkidegoetan ez baita neurketa bereziturik egiten. Iparraldeko daturik ere ez dago.



WWW.GRANHERMANOFB.COM

### Kate handiak handiago bihurtzen ditu neurketa sistemak

Arazoa ez da etxean audimetroa daukan jende gutxiago dagoela, azken urteotan telebistaren eskaintza ugartu izana baizik. Horrek *mainstream*-ari egiten dio mesede, eta eduki espezializatuak eskaintzen dituenari kalte. “Zailagoa da oso ikusle mota espezifikoak daukaten kateen datuak ondo jasotzea kate orokorrenak jasotzea baino”, dio Peralesek, “konparazio bat egitearren: beti ere fidagarriagoa da ‘zein kola freskagarri edaten duzu?’ galdetzen duen inkesta baten emaitza, garagardo markez galdetzen duena baino”.

Honenbestez, etengabe zabaltzen diren audientzia datuetan gainbaloratuta agertzen dira kate handiak, eta kontrakoa gertatzen zaie txikiei. Espainiako La 2ek, esaterako, publiko minoritarioago bati zuzendutako eduki kulturalak eskaintzen ditu batez ere, “eta zailagoa da horko ikusleak audimetrian sartzea”, Peralesek dioenez.

### Eta euskaldunak?

Hori hala izanda, lasai ondorioztatu daiteke ikusle euskaldunen hautuak, gutxiengoa izanda –hizkuntza batean “espezializatutako” ikusleak dira, nolabait esatearren–, ez daudela dagokien neurrian jasota audimetrian. ETB-1eko langile batek kalkulu aritmetiko sinple batzuk helarazi dizkigu, euskarazko programazioaren audientzia datuek zein oreka hauskorra daukaten erakusteko asmoz.

Gauetz, *prime time* deritzan ordutegian, herriarren %40-50 egoten da telebistaren aurrean. Horrek esan nahi du EAEn, guztira 350 audimetro egonik, gauero 150 edo 175 inguru egoten direla piztuta. ETB-1eko saio

Audientzien neurketa sistemak kate handien datuak puzten ditu. Horren ondorio kaltegarri bat da kate horiek ematen dituzten kalitate eskaseko programak justifikatzea, ikusleen nahia horixe eskatzen dutela argudiatuta.

**Etxean audimetroa dauketenen profilak eragiten du telezaborrarekiko zaletasuna benetan dena baino handiagoa agertzea datuetan**

batek ordu horretan %2ko sharea badauka –halaxe du, berbarako, *Mibiluzek*–, ariketa aritmetiko erraz batek diosku hiru audimetro daudela saio horri konektatuta. Hiru baino ez, audientzia handieneko saioetan. Audimetroen banaketan familia euskaltzale bat gehiago edo gutxiago egoteak garrantzi handia eduki dezake euskarazko programa baten etorkizunerako.

### Nork dauka audimetroa etxean?

Arazoa ez da estatistika hutsezkoa, audimetroa dauketenen izaerarekin ere badu zerikusia. Espainiako Estatuan Kantar Media arduratzen da banan-banan, etxerik etxe doazen komertzialen bitartez, panelistak lortzeaz.

Zergatik diogu panelista? Bada, audimetroa daukanari ordainetan eskaintzen zaion gauza bakarra sari-panel batean parte hartzea delako. Aldiro puntuak biltzen dira, eta gero opariak har daitezke puntu horien truke.

“Mundu guztiak ez du panelista izan nahi”, diosku Alejandro Peralesek. Jende mota batek erra-

zago irentsiko du opari-panelaren amua beste batek baino, eta jende mota horrek gustukoago ditu telebista saio mota batzuk beste batzuk baino. Audimetroen bitartez ikusleen datu guztiak jasotzen dira (adina, sexua, elebitasuna...), eta ustez, panelisten laginak ondo ordezkatzeko du jendartea zentzu horretan. “Ontzat eman dezagun hori bete egiten dela”, dio Peralesek; “bada, hala ere oraindik badago beste arazo bat, bizi-estiloarekin zerikusia daukana, ideologiarekin, ikasketa-mailarekin... Oro har, heziketa handiagoa jaso duenak, izpiritu kritikoagoa duenak, diru-sarrera handiagoak dituenak...


ez du audimetrorik eduki nahi”. Oso modu gordinean esanda, panelisten artean gehiago dira telezaborraren jarraitzaileak kalitatezko saioen zaleak baino. Ez dago fenomeno horri buruzko ikerketa zehatzik, baina audientzia datuak jasotzen dituztenek kontuan izaten dute, Peralesen hitzetan: “Jakín badakite sektore bat ez dagoela laginean behar bezala ordezkaturik, eta emaitzak doitzen dituzte haien alde”.

Ez gara, orduan, datuek esaten duten bezain zaborzaleak? Mari-bel Martinezek, Iruñeko Plaza del Castillo ikus-entzule elkarte-ko presidenteak, beste ikuspuntu bat du gaiaz: “Audimetria sistema perfektua iruditzen ez bazait ere, uste dut hortik ateratzen diren datuak nahiko hurbil daudela errealitatetik. Gertatzen dena da publikoki zabaltzen den mezuak ez duela bat egiten datuek diotenarekin. Alegia, benetan jendeak nahi duena telezaborra dela sinetsarazi nahi digute, eta ez da egia”. Martinezek kate pribatu-iei leporatzen die horrela jokatzeari, alegia, telezabor gehien ematen dutenei. Programazio mota hori erruz ematea justifikatu nahi dute, eta badute horretarako arrazoi onik: oso saio mota merkea da.

### Erabiltzaileen “utzikeria”

Edozein estatistikak berezkoa duen errakuntzaz gain, eta “panelistaren izaeraren” desbideratzeaz gain, audientzia-neurtzaileek ondo dakite badela beste faktore bat, jasotako datuak errealitatetik —ez larregi, euren esanetan— aldentzen dituenak: giza faktorea.

Audimetroa daukatenek debekatuta dute horretaz hitz egitea kazetariarekin, baina hala ere bere etxeko atea ireki digu Amaiak —izena geuk asmatua da—. Hiru telebista-aparailu ditu, eta bakoitzean audimetro bat. Telebista piztean, audimetroa ohartu egiten da, eta segundo batzuk igarota, “nor dago hor?” galdetzen du. Galdera hori etengabe piztu eta amatatuko da telebistaren aurrean dagoenak alboko argazkian ageri den urruneko agintean bere izenari dagokion botoia sakatu arte. Beste kasu batzuetan, audimetroak txistu-hots gogaikarria egiten du, helburu berarekin. Baina pertsona batek sakatzeari aski da audimetroa “isiltzeko”, une horretan familia osoa egon arren telebista aurrean. Amaiak diosku bere etxean, gehienetan, txintxo-txintxo sakatzan dituztela sakatu beharreko guztiak, baina ez beti. Bestalde, gelatik alde egiten den bakoitzean,



**Audimetroaren urruneko agintean, botoi bat dagokio 4 urte baino gehiagoko etxeko kide bakoitzari (argazki honetan izenak ezabatu ditugu). Telebista piztean nork berea sakatu behar du, eta baita ere telebista piztuta dagoen gela batera sartzean —nahiz eta ikusteko asmorik ez izan—, edo bertatik irtetean. Portzentaje zehatzik ez badago ere, estimatzen da erabiltzaile kopuru handi batek ez duela arau hori betetzen sukaldarako edo komunerako joan-etorri azkarretan.**

komunera joateko adibidez, berriz sakatu behar da botoia, eta gauza bera itzultzean. “Hori sarritan ez dugu egiten, nahiko nekagarria da etengabe botoi-txoarekin gogoratu beharra”, dio Amaiak, “umeez, batez ere, gutxitan egiten dute”. 4 urtetik gora daukaten familiako kide guztiak behartuta daude telebista ikusi gura duten aldiro errituala betetzera. Eta etxean gonbidatuak badaude haien berri ere eman behar zaio audimetroari, bakoitzaren sexua eta adina adieraziz. Audientzia neurtzearen helburu nagusia, ez dezagun ahaztu, iragarlea bere dirua ondo gastatzen ari dela pentsatzea da.

Telebista munduko adituek ondo dakite Amaiaren etxean gertatzen dena, beste askotan ere gertatzen dela: audimetroa daukatenei, sarritan, “ahaztu” egiten zaie gelatik irteten diren guztietan botoia sakatzeari. Zenbat eta denbora luzeagoa audimetro baten jabe izanda, orduan eta ohikoagoa arauak zorrotz ez betetzea.

### Teknologia ez du dena konponduko

Alejandro Peralesek dio LTDaren teknologia ahalbidetuko duela telebista guzti-guztietan zer ikusten ari den jakitea. Baina oraindik ere beharrezkoa izango da pantailaren beste aldean nor dagoen jakitea; eta horretarako, jendeak segitu beharko du botoitxoak sakatzeko gelatik irtetean. Giza faktoreak segituko du datuetan distortsioa eragiten. “Arazoa ez da distortsioa, ordea”, azpimarratu du Peralesek, “arazoa datu estandar bat edukitzea da, eta telebistan, beste hedabideetan ez bezala, hori lortu da, horregatik denek onartzen dute audimetriak dioena. Erronka nagusia, orain, Interneten estandar hori aurkitzea da. Luze gabe aurrerapenak izango dira audientziaren neurketan, bai telebistan bai beste medioen, ahalik eta distortsio txikiena egon dadin. Esaterako, urruneko aginteararekin ibili beharrean, erabiltzaileak pin edo orratz antzeko bat eramatea, eta ekipoak (dela telebista, dela ordenagailua, dela eskuko telefonoa...) orratz hori irakurtzea zuk ezer egin beharrik gabe. Tira, pin-a eramateaz gogoratu beharko zinateke”.

Audientzia neurketek oraindik lortu ez duten zerbait lortuko da sistema horrekin: tabernetan futbol partidua zenbaterik ikusten dituzten jakitea. Azken esaldiari ironia doinua sumatu badio erreportaje honen balizko audientziak, ez du egileak aurkakoa esango. ■

# TTAKUN (H)ERRENKA

## Album hau

**Z**

utabegintzan Uxueren auzo izan zen idazle batek esan zidan behin iritsi zela momentu bat non, “egunkarikoa irakurri dizut” esan beharrean “egunkarian ikusi zaitut” esaten baitzioten. Antza denez, modan dago orain testuaren aldameneari artikulugilearen argazkia ipintzea. Esango nuke ez dela beti izan horrela. Iratxe Retolazak esaten du egun, euskal literaturan (ere), presentzia literarioak kontsumitzen direla literatura bera baino gehiago. Bada, hor duzue presentziaren garrantziaren beste adibide bat; behiala, sinadura edukitzea bazen gauza bat, orain motz geratzen omen, argazkia ere jarri behar.

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padrón

Despresentziaren idazlerik baldin badago gurean, hori Xabier Montoia dugu ez bairik gabe. Horregatik ez da harritzekoa argazkiaren kontuari topatutako irtenbide egokienak bereak izatea. Gogoan izango duzue bere erretratu hori: zuri-beltzekoa, ezkerrekoak soslaia du agerian, eguzkitako betaurrekoak, aurpegia- ren erdia itzalak estaltzen dio. Ez da erraza asmatzen zenbat urte izango dituen, berdin-berdin balio dezake hogeita hamar urtekoarentzat edo berrogeita hamar urtekoarentzat. Ez lukete Nortasun Agiriko argazkirako onartuko. Hartzen duzu 1988ko *Narraztien mintzoa*, eta hor duzu argazkia; hartzen duzu hamasei urte beranduagoko *Elektrika*, eta argazki bera da ageri. Argazkiaren obligazio deseroso honi izkin egiteko beste aukera bat, *Ni ez naiz Xabier Montoia* diskokoa da, non, berearen orde, berarekin jotzen zuen musikari baten –Iñigo Telletxea– argazkia paratu baitzuen azalean.

Argazki kontuez ari garenez, hor dago, halaber, Family taldearen kasua (bigarrenez da ttakunetan taldea aipatzen dudala, Urrezko Danborraren karreran nabilela pentsatuko duzue agian).

Javier Aramburu eta Iñaki Gametxogoikoetxeak disko bakarra –*Un soplo en el corazón*– ateratzeaz aparte, elkarrekin ageri diren argazki bakarra atera zieten orobat. Hondartza bateko urertzean daude biak, bietako batek ere ez dio kamerari begiratzen, soinean dituzten jantziengatik, neguan direla

ematen du. 1992koa da diskoa eta, hortaz, 1991-1992ko negua izan daiteke. Lekua? Auskalo, baina biak ere donostiarrak direla kontuan izanik, zentzuzkoa dirudi argazkikoa hango hondartzetako bat izatea. Itsasoa harro dago eta Groseko hondartza zaharraren aukeraren alde egingo nuke apustu. Itsaso hori ezin izan Kontxakoa, ezta Ondarretakoa ere. Ezta Zurriolakoa ere. Groseko hondartza denboran urrun hori behar du izan, ez dago zalantzarik; nire belaunaldiko –eta aurreko– *groseroek* lehenengo itsas-ikarak hartu genituenekoa.

Musika kontuez ari garenez, bitxia da nola beste donostiar baten azkeneko diskoan, Rafael Berrioren 1971n, zer eta Groseko hondartza aipatzen den, eta zer eta argazki zahar baten kariatara. *Este álbum* abesti zirraragarrian da. Kantuan argazki-album zahar bat berriro hartu osteko argazkien banan-banako begiratzea deskribatzen da. Eta lehenengo lerroek honela diote: “*Mamá en la playa, creo que es Gros. Aquí en ésta están juntos los dos. Papá en bermudas, mamá a su lado, sonriendo en bañador*”. Pentsa zelako istorioa egongo den hiru esaldi sinple horien sako- nean. Rafael jaunak jakingo du; Rafael jaunak eta, familia kontuez ari garenez, baita Iñaki Berrio jaunak ere.

Eta zutabe kontuez ari garenez, Uxue, zure mizkintasunak zutabegile berri bat eskatzen badizu, Iñaki Berrio handiarekin egin dezakezu aproba; dagoeneko ezagun ez baduzu, noski. Ostegunetan, gipuzkoarren boletín ofizialean.

Uxue, zure mizkintasunak zutabegile berri bat eskatzen badizu, Iñaki Berrio handiarekin egin dezakezu aproba; dagoeneko ezagun ez baduzu, noski. Ostegunetan, gipuzkoarren boletín ofizialean.

# GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

GURE 23 seme alaba sendoek ez dute aza bairik  
jaten, ene gisan > katon zaharrek 85 urteak arte bizi.

LEMOIZKO  
ZENTRALA  
GABE,  
AZAK  
DITUQU  
JANEN



ARZALLUZ  
iberdueroko AKZIONISTA  
1 9 8 0

FUKUSHIMAKO  
ISTRIPUAZ  
GEROZTIK,  
AZAK  
ERE  
EZIN JAN



ADATARA  
Honshuko LABORARIA  
2 0 1 1

Urtzi Urrutikoetxea

KAZETARIA ETA IDAZLEA

## Gipuzkoa, mon amour

**E**do Gipuzkoa *not in my backyard*. Duela urte batzuk, bertso-paper satirikoak osatu zituzten arabar bertsolariek Bertso Eguneko afarirako. Gipuzkoa Arabatik zelan ikusten zen, eta arabarren erantzuna: euskal lurralde euskaldunena, abertzaleena, aurrerakoiena eta, batez ere, orekatuena politikoki, biztanle-banaketan eta abar. Bertso haietan, giputzak deitoratzen zuen Araba erdal-duna, eta amesten Euskal Herria osoa Gipuzkoa bezalakoa izatea. Arabarrak gogorarazten zion Euskal Herri osoa Gipuzkoa balitz ez litzatekeela Euskal Herria izango.

Azkenaldian ikusi dugu Markel Olano Martin Ugalde Kultur Parkean hizlari, eta Eneko Goia hautagai jeltzalea *ZuZem*. Euskaingintza lobbya da Gipuzkoan. Gutxi ala asko, politikari giputzek beharrezko dute euskarazko hedabideen arreta. Gainontzekoetan, ghettotik atera barik jarraitzen dugu, gehienez ere Kultura edo Euskara sailetako arduradunak elkarriketatzen.

Eta bestelako gaietan? Bilboko exilio arrosa aipatzen duten homosexual askok azpimarratzen dituzte Oorereta bezalako herri aurrerakoi eta irekiak. Eskuinak nekez aurkituko du Pasaia baino herri zailagorik. 30etik gorako bataiatu gabeko



DANI BLANCO



Agian UPDk dauka

arrazoi, eta aldundiak  
desagertzeko unea da.

Probintziak gainditu  
eta herri bezala

pentsatzeko



bakarrak hirietan geundelako aurreiritzia oiartzuar batek deuseztu zidan. Eta gero Usurbil dator (eta hor ere, Gipuzkoa ezin libratu partitokrazia hispanotik. Amets Arzallusek aipatzen zidan Ipar-Hegoko kultura politiko desberdina, zelan iristen den alderdiekiko morrontza AHT edo zaborra biltzeari buruzko iritzietaraino. Bidenabar, zer-nolako lezioa Iparraldeko hautetsiek, Aurore Martinekin hasi eta jazarritako beste gazteenganaino).

Ametsetako Euskal Herria zaigu askori Usurbildik hasi eta Iparraldeko hautetsien jarrera. Inposatutako “ezinbesteko” konponbideetatik eztabaida eta herritarren parte-hartzera, demokrazia zuzena eta gure herri eredia laztantzen duen egitasmoa irudikatzen dugu.

Baina gero Artigaseko Zabalgarbiz akordatzen naiz, Castejon eta Boroako zentralaz. Eta pentsatzen dut, Zubietako erraustegiaren mehatxurik ezean, atez atekoa sortuko ote zen. Zornotzarren borroka ezin duinagoak ez zuen Boroako zentrala eragotzi. Norbaitek esango du, “aizue, zuen arazoak zuek konpondu ezin eta gureagatik kritikatu?”. Agian inbidia hutsa da, Usurbilek bidea erakutsi duelako, baina berandu askorentzat. Agian UPDk dauka arrazoi, eta aldundiak desagertzeko unea da. Probintziak gainditu eta herri bezala pentsatzeko. ■

TXANDAN

Amatiño



Azken berrogei urteotan zenbaiten politika-jauziak hizkuntza-aldaketak baino handiagoak izan dira. Aipurik egin beharrik gabe, edonork du gogoan ezker-eskuin muturrez mutur pasatu denik, edota abertzale sutsu izatetik espainiar nazionalista izatera igaro denik.

Ez dira horrenbeste hizkuntza arloan egindako jauzi mortalak, hizkuntzari politikari baino atxikimendu irakunkorragoa balerio legez, edota euskararen apostuetan errotutako ahaleginak alderdiei dagozkien demetan aritutakoak baino kementsuagoak bailiren.

### Muturrez mutur

Hala ere, ezagutu badazagut kazetariaren bat, gaztelaniaz ere lan egin zezan eskatu zion zuzendaria traidoretzat jo ostean, bizitza profesional guztia gaztelaniaz egin duenik. Ezagutzen dudana bezala, euskararen defentsan “faxistak” izan behar genuela esan zidan arren—duela 35 urte eta Durangoko Azokan—, orain barra-barra—eta alderdiren baten mesedetan—gaztelaniaz idazten duen idazlerik.

Arazoa ez da euskaraz ala gaztelaniaz idatzi behar ote duen idazleak, kazetariak edota *sursumcordak*. Kontua da ezin dela ezertan ere “faxista” izan. Ez inoren kontra, baina ezta norberaren alde ere. ■

Xipri Arbellalde

APAIZA ETA IDAZLEA

## Eliza lo-belarra

**B**errikitan irakurtzen nuen lehenago Eliza bezala orain kirola dela herriaren lo-belarra. Marxek zuen erran: “Erlijioa herriaren opioa”. Euskal Herrian erran daiteke “lo-belarra” izan dela Eliza?

Azken hamarkadei begirada bat emanez, ikusten dugu, erregezalea zen Don Mateo Mujika apezpikuak abertzaleen alderdia hartu zuela 1936an, Espainiako apezpikuen aurka: erbesteratu zuten. Euskal Herriko 2.000 apezetarik 16 fusilatutak izan ziren, 250 kanporatuak, 800 gaztigatuak. Hartu mediku, abokatu, ingeniari, enpresaburu eta beste, zein dira Eliza bezain gogorki joak izan? Apezak lo-belarraren zurrungan?

Kanbotik zuen Mujikak plazaratu 1945ean. *Imperativos de mi conciencia* garai haietan euskaldunen alde agertu dokumenturik garrantzitsuena. 1974an oso-oso gutik egin zuen, Añoveros Bilboko apezpikua ez baitzuen Francok kanporatu. Lo-belarren zurrungatik?

Gero, mundu osoan zabaldu gutunak izenpetu zituzten apez euskaldunek euskal arazoaz. Lehenik 100 apezek goitik Donostiako beren obispoari 1956an. 339k mundu osoari 1960an. Ondotik 1963an, Kontzilioari, 500ez goitik: hauei esker da Kontzilioko erabakietan sartu apezpikuen izendatzea ez dela estatuburuen esku izan, ordu arte Espainian bezala. 300ek



DANI BLANCO

oraino Espainiako apezpikuei 1968an. Berriz galdera bera: gizarteko zein sailetan, mediku, abokatu, ingeniari, enpresaburu eta beste, ikusi da horrelakorik? Lokartuak *Egiz* aldizkarikoak? Lokartuak Larrañaga eta Pildain apezpikuak? Lokartuak Onaindia, Azpiazu, Garde apezak horiek baizik ez izendatzeko?

Non sortu dira ikastolak ez bada elizetako geletan? Nork sortu ditu euskaraz mintzo ziren irratia (Loiola, Segura, Arrate) ez bada apezek? Egiten ahal zutela! Ahal izatetik eta egitera bada bide. Bide hori apezek egin dute. Ez lotarik!

Non egin ditu bere biltzar nagusiak ETak, biltzar nagusiak egiten zituelarik, ez bada apezek eskuetan ziren geletan, hala Hego, hala Iparraldean.

Badira gogoia esloganez hazten dutenak. Ez da halako lo-belarik! Badira mundu hau haiekin hasi dela uste dutenak, ohartu ere gabe antzinagokoek ireki bideetan dabiltzala. Eta hau

ez da egia bakarrik Elizarentzat.

Apez horiek, ez direla *denak*! Egia handia. Pilotan profesional bakar batzuk baizik ez dira. Zaleak behar dituzte atzetik milaka. Elizan ere milaka zalek dituzte posible egiten profesionalak.

Azken galdera bat. Eskutan daukazu ARGIA hau ez ote zuten apezek biziari 60 urtez, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarik gabe? ■

Non sortu dira ikastolak ez bada elizetako geletan? Nork sortu ditu euskaraz mintzo ziren irratia ez bada apezek? Egiten ahal zutela! Ahal izatetik eta egitera bada bide.

Bide hori apezek egin dute.

Ez lotarik!



## Joan hartzak, erlojuak eta beste piztia batzuk

### IKUSKIZUNA

Patxi Zubizarreta (testuak)  
Joserra Senperena (musika)  
Thomas Canet (irudiak)

Bila ezazu Joan hartzak, erlojuak eta beste piztia batzuk  
Facebook-en

Apirilaren 6an, 20.00etan  
Gasteizko Goiuri jauregian (Villa Suso)  
Gasteizko Udalaren eskutik

www.txalaparta.com



txalaparta

## ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

# Eszeptikoaren estrategia

**B**aliabide ezaguna da. Gertakari paranormalak dituzten film guztiek erabiltzen dute, ia definizioz, beren egiturari. Zinemak atsegin ditu, ia definizioz ere bai, aldaketa, garapena eta —ez nuen esan nahi, baina bai— traizioa. Eta denok dugu atsegin fikzioa, eta denok narratzen gaitu fikzio batek, aldakor bera ere, oraindik agian ez daki-gun arren zer eginaraziko digun, zertaz konbentzituko, nor edo zer traizionatzera eramango, guk geure buruaren berdinak izaten jarraitzen dugun bitartean.

Estralurtarren istorioetan, deabruak hartutako neskakxetan, heriotzaren ondorengo bizitzari buruzkoetan gertakariak eszeptikoaren, sinesgogorren, zientzialariaren begietatik ikusiko ditugu, gu harekin batera eramateko. Jarrera kritikoak zikintzeko kanpaina sistematiko honek betidanik amorratu bizia eragin dit. Norbaitek, UNESCOren nazioarteko komite zientifikoren batek, Javier Armentiak, norbaitek Hollywood epaitegietara eraman beharko luke. Fikzioan aukerarik burugabeena nagusitu ohi da. Esaterako, zoriontasuna. Baina hori beste egun baterako da. Estrategia honek errealtatea nola hautematen dugun baldintzatzen du, kalterako.

Protagonistaren kritizismoaz baliatzen dira sinesgarritasuna emateko, baina azken helburua —edo zeharkaltea— dudaren desprestigioa da, jarrera sinesbera trinkotzea. Sexto Enpirikoak esana: “Toki garai batera igo den gizona, haraino baliatu duen eskaile-raz ostiko batez libratzea ezinezkoa ez den gisa berean, ez da gertagaitza eszeptikoak, behin bere tesiak frogatzera iritsi dela —eskailera moduan, nolabait esateko, erabili duen frogabidea existitzen ez dela frogatzen duen argudio batekin—, bere argudioa bera suntsitzeari ekin diezaiola”.



JOSU SANTESTEBAN

Zahartzeari diodan beldur nagusietakoa da nik orain ez dudan zein sinesmenek hartuko nauen, zer etsairi emango diodan arrazoia eta eredu. Oraindik ez naiz arriskutsuegia, baina lehen sintomak izan daitezkeenak agertzen ditut, ez kaltegarriak oraindik, edo hala uste dut bederen



irudia:  
Antton Olariaga

Mundu guztiak badaki, exortzismoa ongi bururatzeko, fedea galdu duen apaiz baten-gana jo behar duzula, haur baten irribarreak agure betizua desarmatu egiten duela, poesiak bihozgogorra; zuk lehenago ez duzula sekulan halakoetan sinetsi, baina igarle horrek dena asmatu zizula, bazkaldu berri zenuena eta zenbateko lo-kuluxka ere

barne, begien ninietara begiratzetxe hutsez. Mundu guztiak badaki, ibili eta buelta aritu ondoren idatzi honetan (inor nire alde erakarriko badut) azkenean iritzi itxaropentsua agertuko dudala dakien modu berean, badaki edozein argudiatze blindatu eta erantzunezin bilakatzeko, sinestun berriaren argudioa edo *argumentum ad contrarium* dei genezakeenera jo besterik ez duela.

Kristautasunak arrakasta izanen luke, Paulo Tartsokoak ez balu bere iritzi aldaketaren lekukotasuna eman? Neoliberal basatienak, lehenago ezkerreko mugimenduetan borrokatu badu, ez dago aurre egin diezaiokeenik. ETAn ibili ondoren, ETA lehenago, nazionalismoa beranduago, eta ezker-tasuna azkenik salatu dutenek, nik —ahaleginak ahalegin— inoiz izango ez dudun autoritate morala izango omen dute.

Adinean sartzen ari naiz, eta zahartzeari diodan beldur nagusietakoa da nik orain —munduko arrazoi guztiarekin— ez dudun zein sinesmenek hartuko ote nauen, zer etsairi emango ote diodan arrazoia eta eredu. Oraindik ez naiz arriskutsuegia, baina lehen sintomak izan daitezkeenak agertzen ditut, ez kaltegarriak oraindik, edo hala uste dut bederen (eta uste izango dut beti?!), orain arte burukomineraino *ja-san-gai-tza* egin zaidan Richard Wagner da egun gusturen aditzen dudana. Irakurle, zuk ere haztatu beharko zenuke; baietz gustatu, esaterako,

*Isoldes Liebstd.* ■

## Dokumentala

# «Sakelakoa urtero aldatzeak ez gaitu zoriontsuago egiten»

Hiru urte egin zituen zaharkitzapen programatuari buruzko dokumentala egiten. Derrigorrez ikusi beharko litzatekeen lan honek erakusten du zer nolako iruzurrean bizi garen. Milaka produktu egiten dira, une jakin batean huts egiteko planifikatuta. Orduan, berria erosten dugu.

Testua eta argazkia:

LANDER ARBELAITZ

COSIMA DANNORITZER (Dortmund, Alemania, 1965) dokumentalgilea bere azken dokumentala aurkezten dabil mundu osoan: *Comprar, tirar comprar* gaztelaniaz edo *Prêt à jeter* frantsesez. Filmak argi erakusten du zaharkitzapen programatua oso sartuta dagoela egungo gizartean. Dena den, sistema era askotan legitimatzen dugu guk ere. Cristina Enea Fundazioak ekarrita izan da Donostian eta proiektioaren aurretik hitz egin dugu berarekin.

### Gustura al zaude egindako lanarekin?

Bai. Batzuetan gertatzen da dokumental bat egin eta urtebete behin bakarrik botatzen dutela telebistan, goizaldeko ordu txikietan, eta gero desagertu egiten dela betirako. Oso pozik nago, proiektzioak, eztabaidak eta hitzaldiak antolatzen baitituzte dokumentala zentro hartuta, eta batera eta bestera gonbidatzen gaituzte.

### Zaharkitzapen programatua kontzeptua sekula aditu ez duenarentzat, nola definituko zenuke?

Produktu baten kontsumo epea, berez dago-kiona baino laburragoa izan dadin artifizialki erabiltzen den teknika da. Kontsumitzaileek uste zutena baino lehenago aldatu beharko dute erositakoa eta berria erosi; eta fabrikatidator biziraupen programatu batekin.

### Noiz eta zergatik erabaki zenuen gai honi buruzko dokumentala egitea?

Aspalditik neukan buruan. Kondaira asko nituen entzunak sekula hausten ez ziren produktuei buruz. Bartzelonako birziklatze eremu bat ere grabatu genuen behin, eta han



Cosima  
Dannoritzer

nengoela, horrenbeste gauza ikusten nituen botata nire baitan pentsatzen hasi nintzela: “Hemen dauden gauza askok ziurrenik oso arazo txikia izan zuten, eta zuzenean bota egin dituzte, ez dugu ezer konpontzen...”. Pantaila mendiak ikus zitezkeen. Hala, egun batean pixka bat ikertzen hasi behar nuela erabaki nuen, eta behingoz argitu ea egiazko historiak ziren ahoz aho zebiltzanak ala ez.

### Zer ondorio atera dituzu?

Zaharkitzapena oso modu sortzailean ibiltzen zuten zenbait adibide dibertigarri aurkitu nahi nituen. Baina hainbeste ziren kasuak, une batean konturatu ginela sistema osoa zegoela gaitz honekin kutsatua. Hazkundearen ekonomiaren zutabeetako bat da kredituekin eta publizitatearekin batera. Horrez gain, dirudiena baino nahasiago gaude honetan: aparailu bati bizitza mugatzen dion txip bat jartzen badiote barnean, inprimagailu bati adibidez, ziurrenik ezingo dugu ezer egin; baina urtero sakelako telefonoa aldatzen badugu aurrekoa oraindik ongi dabilenean, sistema laguntzen besterik ez gara ari. Obsolezentzia psikologikoa ere hor dago.

### Kontua da, daukaguna bota eta berria erostea.

Objektu batzuk une batean huts egin dezaten programatuta daude teknikoki. Beste batzuk material merkeekin egiten dituzte ez luze irauteko eta aldatu egin behar genituzkeela iradokitzen digute publizitate bitartez. Etengabe produktu berriak atera edo sistema berriak sortzen dituzte, askotan aurrekoekin bateragarri ez direnak. Modu askotan, beraz, emaitza beraren bila ibiltzen dira: daukazuna bota, eta berria erosi ahalik eta azkarren. 1950. urtean Brooks Stevens diseinatzaile industrialak definitu zuen kontzeptua: “Zaharkitzapen programatua da zerbait berria, pixka bat hobea eta beharrezkoa baino lehentxeago lortzeko kontsumitzaileak duen nahia”. Horregatik ateratzen zituen urtero modelo berriak, etengabe.

### Noiz hasi zen hau guztia?

Kontsumo gizartearen hasieran, masan produzitzen hasi zirenean. 1920ko hamarkadaren hasieran. Horrenbeste gauza produzituta, dena oso eskuragarri jarri zen eta jendea lehen aldiz dibertitzeko hasi zen erosketak egiten. Bazterrak gauza berriz bete ziren, dendak goraino zeuden... progresoa azken batean. Arazoa fabrikanteen buruetan zegoen ordea, pentsatzen hasi baitziren zer gertatuko zen denek dena edukitzean. 1928an, publizitate aldizkari batean oso artikulua argigarria atera zuten. Honela zioen: “Hausten ez den produktua, negozioarentzat tragedia da”.

Eta tragediarik nahi ez zutenez, zaharkitzapen programatua sortu zuten. Produktuen bizitza laburtuz, jendea etengabe gauzak ordezkatzeko hasi zen, ia oharkabean.

### Zuk zer kasu aztertu dituzu?

Hausten ez zen bonbilaren bila hasi ginen, baita 100.000 ordu irauten zituena sortu zutela aurkitu ere; gero, oso erresistentea zen nylona, autoak, informatikako elementuak...

### Hautsiko direla jakinda zerbait egin eta ezer esan gabe saltzea ez al da gizarteari iruzurra?

Zaharkitzapen programatua iruzurra da. Gauza bat bizitza mugatu batekin sortu, ezer esan gabe saldu, eta nik dirua xahutu ostean, hautsi egiten bazait, nola ez da ba izango iruzurra? Horregatik ez dute ezer esaten, bada, kitelako esango balute, nahiz eta garestixea goa izan, hiru aldiz gehiago irauten duen produktu bat aukeran izanda, hori erosiko genukeela ia denok. Eta ez gaituzte gu bakarrik engainatzen. Iruzurra planetari ere egiten diote. Adibide berera itzulita, epe berean hiru aldiz erosi behar badut gauza bat hautsi egin delako, bat erosita baino askoz zabor gehiago sortzen ari naiz, inguru guztiak hondatuz.

### Noiz arte iraun dezake honek?

Dokumentalean Deshazkundearen Teoria defendatzen duen Serge Latouchek zera dio: “Ezin da hazkunde mugagaberik izan planeta mugatu batean”. Ez dugu Einstein izan beharrik hori ulertzeko. Hasiera batean zaharkitzapenaren ideiak ona zirudien. Dena gora zihoan eta prezioak behera, lan asko zegoen... baina konturatu gara ez duela etorkizunik. Denbora kontua da lehengaiak xahutzea, eta beste gauza batzuk aurkitu behar ditugu egoera horri aurre egiteko.

### Kontsumo arduratsua defendatzen duzu zuk.

Kontsumoak ez garamatza zoriontasun absolutura. Zenbaitek aspaldi ateratako ondorioa da hau. Gure aurrekoek baino askoz gehiago kontsumitzen dugu eta zoriontasun maila ez da horrenbeste igo. Beste ikerketa batzuek diote, duzuna baino askoz diru gehiago edukiko bazenu ere, zoriontasunaren hazkundea ez litzatekeela proportzionala izango. Kontsumo arduratsua benetan behar dugunarekin batera doa. Etxea, jana, lana —ahal izanez gero interesgarria—, lagunak, bidaiatzeko aukera, osasun sistema ona... Horiek dira lehen mailako beharrak. Parametro horiekin kontsumitu behar genuke, eta horiek ongi kunplututa edukitzen saiatu. Urtero sakelako telefonoa aldatzeak ez gaitu zoriontsuago egiten.

**Eta zer egin dezakegu?**

Hori da niri gehien interesatzen zaidan eztabaida. Adibidez, urtero beharrean, bi urtean behin aldatuko bagenu sakelakoa, erdira jaitsiko genuke gure txatarra elektronikoa. Zerbait hondatu bazaizu konpontzen saiatu, berri bat erostea hobe dela dioten saltzaileen aurrean insinatu, diru gehixeago gastatuta norberarentzat bakarrik izan beharrean, elkarbanatuta erosi gailu hobeak... Zenbait modan sartuta daude, beste batzuk politikan, zuzenbidean... eta eremu horietatik ere gauzak egin daitezke. Baita sare sozialetan ere. Webguneren batean jarriko bagenu erosten ditugun gauzek zenbat iraun diguten, ikaragarria litzateke datu-basea.

**Horrela kontatuta oso erraza dirudi, baina ez al duzu uste arazoa guretzat handiegia dela pentsatzen dugula?**

Hori pentsatzea oso erraza da. Enpresak oso indartsuak direla, politikariek ez dutela ezer egiten, eta pertsona indibidual gisa ez garela ezer... Denok gure objektuekin luzaroago iraungo bagenu, biderkatu egingo litzateke efektua eta askoz zabor gutxiago izango genuke. Dokumentalean iPodaren kasua aipatzen da. Fabrikatu zituzten lehenak 18 hilabete bakarrik irauteko zeuden prestatuta, eta bateria xahutzean berriak erostea bilatzen zuten. Kasua Youtuben zintzilikatutako bideo batekin hasi zen zabaltzen. Frustratuta zeuden bi gazte ziren, eta bideoa egin zuten musika dibertigarri batekin, jendea informatzeko. Bost milioi pertsonak ikusi zuten eta azkenean salaketa kolektibo bat egin zuten, baita emaitza oso positiboak lortu ere: bateria aldatzeko zerbitzua jarri behar izan zuten, garantia luzatu...

**Uste duzu arazoa presente izanda ere, gelditu daitekeela ekonomiaren motore sekretu hau?**

Hasi da aldatzen gauza. Hasi dira irauten duten produktuak egiten, aldizkari batzuk zein produktuk irauten duten aipatzen dute, jendea gaiaz hizketan hasi da... Krisia ere hemen da eta ezin dugu lehen adina erosi. Ez badugu aldaketa prestatzen, lehengaiak xahutzen direnean egin beharko dugu. Batzuk konturatu dira kontsumoak ez duela zoriontasuna ekartzen, eta horrenbeste lan egitea erosahalmenari begira bizitzeko, ez zaiela horrenbeste interesatzen. Batzuk nahiago dute lan gutxixeago egin, diru gutxixeago edukiz gutxiago erosi, baina denbora gehiago eduki bere intereseko gauzak egiteko edo lagunekin egoteko. Psikologia aldatzen ari da. ■

**argia.com** Dokumentalaz eta soluzioez gehiago sakontzen duen elkarrizketaren bertsio luzeagoa duzu webgunean irakurgai.



**Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:**

**LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA****JARDUERA PROGRAMA****GOIURI JAUREGIA**

- "Joan"  
Errezitaldia ez den errezitaldia  
Aditzeko: Patxi Zubizarreta  
Entzuteko: Joserra Senperena  
Ikusteko: Thomas Canet  
Apirilak 6, 19:40.  
Doan, lekuak bete arte.
- Fikzioaren egiak  
Kamele Jaio  
Apirilak 12, 19:40.  
Doan, lekuak bete arte.

**ESPAINIA PLAZA**

- Apirilak 16-17. 10:00-21:00
- Libururen salmenta eta erakusketa

**ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA**

- Apirilak 16-17. 12:00-20:00
- Liburuen zozketa
- Iradokizunen liburua
- Familia eta haurrentzako lantegiak  
Liburua baino zerbait gehiago.  
Papiroflexia (+ 3 urte)  
Apirilak 16: 17:00-18:30 eta  
apirilak 17: 17:00-19:00  
Ondorioak eta hildako gozoa  
(+6 urte)  
Apirilak 17. 12:00-14:00  
Piratak. Kale ikuskizuna  
Apirilak 16. 13:00 eta 18:30
- Here begins the story.  
Dantza eta akrobazia  
Apirilak 23. 13:00 eta 19:00.

**KORRIKA KULTURALA**

- 8 begi.  
Antzerkia  
Apirilak 8, 19:00  
Andre Maria Zuriaren plaza
- II. KORRIKA-XIBA topaketa  
Apirilak 12, 10:00-13:00.
- KORRIKA TXIKIA  
Apirilak 12
- KORRIKA  
Apirilak 14

**Etorri eta gozatu gurekin!**



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala

# Liburuak

KRITIKA

*Zu zara orain txoria.*  
Mikel Etxaburu.  
Elkar. 108 orrialde. 14 euro.

Helduen literatura  
*Igor Estankona*



## Kartzelako denbora

ESPETXEA, maitasuna eta utopia. Mikel Etxabururen (Ondarroa, 1969) lehen lan honetan Joseba Sarrionandiaren armiarma ikusi ditut berriro, sabaitik zintzilik, eta Ho Chi Minh-en bizimodu arrunta kartzelaren errealitate paraleloan, eta maitasuna barroreak baino harago: “Akrobatak harietan bizi dira,/ armiarman moduan./ Nagoen ziegan ere badago hari bat/ errekuentoa eta gero hantxe loak hartzeko./ (...) Nagoen ziegan ere badago eguzki bat/ errekuentoa eta gero hantxe biok musu emateko”.

Etxaburu independentziaren ideiek eroan zuten bi urtez Soto del Realera, Alcalá-Mecora, eta ideien independentziarekin ondu du poesia fin bat, ordenarik gabekoa eta intuiziozkoa, ostera ere frogatuz Harkaitz Canok dioena hitzaurre labur ederrean: “Askatasuna ahoa betetzen digun hitz maiztu horietakoa da”. Gaiak ez du enpalagurik sortzen, ordea, Etxabururen liburuan. Denbora geldo leun batek bustitzen du dena, itsaso baten antzekoa da itxaronaldia: aktiboa. Pentsatu egiten du presoak, hitzak hautatu egiten ditu, irakurri egiten du, hartu eta utzi dabil papera. Ez dauka presarik.

Mendez mende maiztu dira euskaldunen giltzapeko literaturak, geldoak baina arinak: Juan Ignazio Iztueta XX. mende hasieran, gerra ostean Lauaxeta, Gurseko kontzentrazio esparrutik Orixe, Mario Onaindia Burgosko prozesuan, Xabier Amurizak Zamoratik... Jokin Urainen errota bultaka ari da oraindik, pisutsu eta tai gabe, herri baten pazientzia neurtuz.

*Zu zara orain txoria* poema liburuan ere denbora ez da iragan-korra, beste zeozer da. Denborak forma desberdinak hartzen ditu –txoriarenak, ametsenak, desertuarenak–, baina zain bezala dago dena, poetaren diskurtsoa soilik entzuten da, barruko gelditasunean. Goian aipatu dugun “eguzkian emandako musua” horixe da, hain zuzen: denbora sustantzia dinamikoa da, lodi doa kartzelan, arin kanpoan. Denbora subjektua da, poesiaren lanabesa, eta erritmoa, bada, jagon beharreko lehen aldagaia. Poemek tempo lasaia dute: pasatu egiten dira, baina ez alferrik, ez geldian, ez negarrez.

Erreka bezala doa irakurketa, eta *Ez-lekuak*, *Leku pribatuak* eta *Leku posibleak* atalak bisitatzeko dituzten espesketik maitasunera eta maitasunetik utopiar, azkenean iturburura itzuliz, “herri-*ra*”, zentzu zabalean: “Belak egin ditut izarekin/ (...) herrira bueltatzeko geldi-geldi”. Poesian ur geldia bada heriotza, bizitzari kantatzeko dio Etxaburuk, korronteari. Mila aldiz eroango gaituzte kartzelara, baina ezin gaituzte bajatu bi aldiz erreka berberera. ■

## Potrobizargorri itsaslapurraren istorioa

Tematikaz eta moldez nahiko ezohikoa begitanduko zaio euskal irakurleari Ibai Mendinueta idatzitako *Xenda bi ez duk lizentzi* nobela. Lehen bolumena da esku artean daukaguna eta Potrobizargorri itsaslapurraren istorioa kontatzen du, batzuetan lehenengo pertsona eta bestetan haren naoko marinelen begiradetatik. XVI. mende

bukaera kokatua, hainbat pertsonaia gurutzatzen dira narrazioan, denak ere ahal bezala bizi-rauteko ahaleginean dabil-tzanak. Euskalki ugari uztartu ditu Mendinueta

nobela osatzeko eta eskuratu nahi duenak egilearekin harremanetan jar-tzea besterik ez du, ilbeltz@hotmail.com helbidera idat-tziz. ■



*Xenda bi ez duk lizentzi.*  
Ibai Mendinueta.  
Autoedizioa.  
1.054 orrialde.

## Eusko Ikaskuntzaren antropologia aldizkaria

Eusko Ikaskuntzak publikatzen du *Zainak* aldizkaria, antropologia eta etnografia gaiak ardatz hartuta. Aldizkariaren 33. zenbakian gai nagusia itsas-antropologia da eta gaiari hainbat alderditatik bota nahi izan diote begiratu. Besteak beste Eliseu Carbonell-ek, itsasoko ondare inmaterialaz idatzi du; Isusko Vivas-ek itsas bazterreko hiri-paisaiaren egitura eta eraiketa sinbolikoaz jardun du; Xabier Armendarizek XVIII. mendetik XXI.era euskal herritarrek itsasoarekin lotuta izan dituzten sinismenak aztertu ditu; Ane Izarrak Oria ibaian, Aginaga parean ibiltzen ziren ontziak ikertu ditu; eta Xabier Ezeizabarrenak EBko itsas-politiken erreformaren beharra azpimarratu du. ■



*Zainak.*  
Batzuen artean.  
Eusko Ikaskuntza.  
469 orrialde. 14 euro.

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



## **Equilibrio inestable.**

Igor Paskual.  
Pop Up Music.  
Iraupena: 41'50".  
10 euro.

## Heldutasunaren oka gura dotorea

PASKUAL ezaguna da Loquilloren taldeko gitarra jotzailea delako, baina Trintxerpen jaiotako mutilak aurretik Babylon Chat glam taldea sortu zuen eta oraingoa proiektu propioa aurkeztu du. Loquillok ukitutako guztiak duen berezko harropuzkeria alde batera utzita, lan pertsonal eta aldi berean dotorea egin du, estiloz oso irekia eta instrumentazio aldetik arina bezain zaindua dena. Gaztelaniaz abestutako hamabi piezatan Madrilgo mobidako

pop melodia autentikoena, Nick Caven tankerako ekaitz-giroa duten pieza orkestralak, AEBetan sustraiak dituen folk-countrya, soka instrumentuak, Burningen kiratsa duen pieza canallaren bat, Irlandako oihartzunak eta pop-rocka landu ditu, besteak beste. Gainera, poesiaz, errealismoz eta sentsazio gazi-gozoz betetako hitz ederak idatzi ditu.

[www.igorpaskual.com](http://www.igorpaskual.com)

## Igor Paskual

## «Rockaren mundua superlatiboa da, baina baita ostalaritzakoa, publizistena...»

“Oreka desegonkorra”. Oreka posible al da hain superlatiboa den rockaren munduan?

Oreka ez da gustukoena, nahiz eta osasungarriena den; arriskurik jasan gabe bizi zaitezke, baina ez dauka intentsitate handirik. Nahiago dut bietatik hartu eta bizipen intentso eta egonkorak izaten saiatzea, baina ia ezinezkoa da. Rockaren mundua superlatiboa da, baina baita ostalaritzakoa, publizistena... Jada rockeroek ez dugu “alde basatian” bizitzearen eskusiba.

“Ametsak betetzea nahi baduzu, trai-ziorako musikarik ez entzun”. Ez al zen musika gauza fidel bakarra?

Rockak guztia eman dit, baina gauza asko kendu ere bai, maitale jeloskor baten modukoa da, besterik egiten uzten ez dizuna. Musikak ez dauka fidelitasunarekin zerikusirik, soinu soila da. Musikariok



bihurtzen dugu soinu hori sinesgarria edo hutsik dagoen zerbait.

Gitarren tratamenduak eta moldaketak asko gustatu zaizkit. Kantu biluziak badira ere, ondo jantzita daude...

Eskerrik asko. Instrumentu justuak sartu nahi nituen, gutxi baina bereizgarriak. Zailena abesti bakoitzari zer arropa jantzi erabakitzea izan da. Batzuek nahikoa zuten

bikiniarekin, beste batzuek Dior eskatu zidaten, Fred Perry batek, eta batzuetan Zara nahikoa zen!

“Edaten itxurak egiten baino hobeto pasatzen dira egunak”; esaldi polita. *Bebe-mos* poesía hutsa da, oso ona. Baina rocka ez al da itxurak egitea ere?

Itxurak egitea baino gehiago, rocka da gauzak gehien komeni zaigun alderditik erakustea. Ez da gezur osoa esatea, baina traban egiten

dizkiguten egiak ezkututzen ditugu. Edateak erantzukizunetatik aldentzea errazten dizu, bizitzatik hartutako opor batzuk, baina faktura ordaintzerakoan errealitateak dago-kizun lekuan jartzen zaitu berriro.

Zer eman dizu Loquillok eta zer zuk berari?

Loquillok esperientzia, jakintza eta burua eman dizkit; eta nik berari pasioa, arima eta bihotza. ■

# Ezpalak

JON TORNER

## Itzulpenen datu-basea sareratu du Gipuzkoako Aldundiak

2006TIK GAUR ARTE Gipuzkoako Diputazioak egin dituen itzulpenak sarean eskuragarri ipini dituzte. Creative Commons (Aitortu 3.0 Espainia) baimena duten 28.000 dokumentu eta 52.000 esaldi bildu dituzte datu-basean ([www.gipuzkoa.net/imemoriak](http://www.gipuzkoa.net/imemoriak)). Edonork kontsulta dezake, eta euskararen normalizaziorako tresna "indartsua" dela esan du Karlos del Olmo itzultzaile eta Donostiako Udaleko euskara teknikariak.

## 3.500 urteko meategiak Aralarren

AMEZKETAKO Arritzagan, Aralarren, Brontze Aroko meategiak aurkitu dituzte Felix Ugarte espeleologia elkarteko eta Arkeolaneko kideek. Euskal Herrian parekorik ez duen aurkikuntza da, eta Europan oso leku gutxitan daude hain antzina sortutako zuloak. Proiektuaren arduradunen hitzetan, meategiok ez dira autogestiorako sortutakoak, produkzio handiko gune sofistikatuak baizik, eta bertan lanean aritzen zirenak meatzari adituak ziren.

**EHUko** Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 1. mailako ikasleek *Kapuko* aldizkaria sortu dute. Aldizkariak gain aktualitateko gaiak Interneten zintzilikatuko dituzte eta Kapuko Telebista ere abian jarri dute. Webgunea: [www.kapukoaldizkaria.tk](http://www.kapukoaldizkaria.tk).

**Koldo Mitxelena** hizkuntzalariaren testu guztiak hamabost liburuko bilduman plazaratu dituzte Joseba Lakarra eta Iñigo Ruiz EHUko irakasleek. Mitxelena hil aurreko eta hil ondorengo lanak jaso dituzte; baita izenaren laburduraz eta ezizenaz sinatutakoak ere. Liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EHUk argitaratu dute, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

● **Agurtzane Elustondo Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko lehendakariak *Gaur8* aldizkarian:** «Irrati batzuk tarte egiten diote trikitiari, baina orokorrean programa bereziei lotuta, ez gainerako musika motekin tartekatuta, eta hori publiko zabalera iristeko muga da. Entzunaren poderioz hartzen diogu musikari zenbaitetan gustua eta trikitia entzuteko aukera oso murrizta da».

**ZIENTZIA UDALEKUAK 2011**

Abentura, esperimenduak, natura, ur-jolasak, irteerak... Aprobetxatu eta gozatu udaz, gozatu zientziak.

**Izan ausarta: eman izena, eta bizi uda zirraragarri bat!**

**Aurtengo udan, zientziak blai!**

Izen-emateak  
<http://udalekuak.elhuyar.org>

Izena emateko epea  
 apirilaren 4tik 15era

Informazio gehiago  
<http://udalekuak.elhuyar.org> tel.: 943 36 30 40 (Ordutegia: 9.00-14.00)

12-14 urte  
 14-16 urte

ELHUYAR  
 EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO  
 HEZKUNTZA, UNIVERSITATEA  
 ETA IRRITIA SAILA  
 DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
 UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

## Dilijentziari maitasuna

*La nuit américaine*. Zuzendaria: François Truffaut. Aktoreak: Jacqueline Bisset, Jean-Pierre Léaud, Jean-Pierre Aumont, François Truffaut. Frantzia, 1973. 112 minutu.

STANLEY KUBRICkek zioen pelikula bat zuzentzea zela autotxokea gidatu bitartean *Gerra eta bakea* idazten saiatzea bezalako zerbait, nahiz eta behin lanak bukatuta, zaila egiten zitzaien plazer handiagorik inon aurkitzea. Truffautek bestela azaltzen du *La nuit américaine* filmean: zine-zuzendari izatea Far Westeko dilijentzia batean joatea bezalakoa da; hasieran bidaia gozagarria espero duzu, baina bidearen erdira iritsi zarenerako, bizirik ateratzea besterik ez daukazu buruan.

Pelikula baten filmazioko nekeei eskainitako lana da 1973ko istorio hau. Magiak oro bazterrean utzi eta hesteak, kartilagoak, giharrek eta mintzak erakutsi zituen Truffautek, gaur egun hain modan dagoen

autofikzioaren ildotik. Ferrand izeneko zuzendaria (Truffautek berak antzeztua) *Je vous présente Pamela* pelikula grabatu nahian dabil. Bidean, mila buruhauste: akto-reen izaera mainatsua, ekoizleekin etengabeko eztabaida, errodateje-plana behin eta berriz aldatu beharra... eta hemen kontatuko ez dugun tragedia gertatu ostean ere, pelikula bukatzeko erabakimena.

Pertsonaia apur bat hieratikoekin eta algara baino irriñoa bilatzen duten zenbait gagekin, bikain josi zuen zuzendari frantziarrak funtsean maitasun istorio gisa sailka dezakegun film hau. Bai, maitasun istorioa. Horrek batzen baititu pelikulako pertsonaia eta eszena guztiak: ez noski, pertsonen arteko maitasunak —nahiz eta azkenerako denak oheratuko diren denekin—, arte bati, zinemari, dioten amodio eroak baizik. ■



## publizitatea

## Etxepare hiritarren aurrera

**E**txepare Euskal Institutua hiritarren aurrean aurkezteko AT! ikuskizuna eskaini zuen erakundeak martxoaren 15ean Bilboko Arriaga Antzokian. Ikuskizunak arrakasta handia izan zuen eta aretoa lepo bete zen bertaratu ziren 1.200 lagunekin. AT! euskal kultura erakusteko eta promozionatzeko sortutako ikuskizuna da eta Fernando Bernuesek eta Mireia Gabi-londok zuzendu dute. 25 euskal idazlek sortutako testuak beste horrenbeste aktorek interpretatu zituz-



tenen, musikaz eta dantzaz lagunduta. Hala, hasieran hutsik zegoen oholtza pixkanaka-pixkanaka betez joan zen, aharik eta partaide guztiek taldea osatu eta oholtza bete zuten arte.

Ikuskizuna osatzeko erabiltako testuak nahiz musika originalak dira eta emanaldi honetarako sortu dira espresuki, ikuskizunak euskal sortzaile eta artisten erakusleio

izan nahi baitu, euskal nortasun eta ikuspegi berriaren erakusle.




**MUNDUORO**  
euskaraz

# Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

## Hitz gezidunak

|                                                       |                                |                                          |  |                                             |                                                                                                   |                                  |                   |                                    |                               |                                                       |
|-------------------------------------------------------|--------------------------------|------------------------------------------|--|---------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------|-------------------|------------------------------------|-------------------------------|-------------------------------------------------------|
| EHKO<br>HIRIBURU<br>HISTORIKOA<br>GIPUZKOAKO<br>IBALA |                                | AHULTASUNA<br>BETEALDIA,<br>OKADA        |  | NAFARROAKO<br>HERRIA                        | <br>IÑIGO AZKONA | OSPEA, SONA<br>LAPA-BELAR        |                   | GAZTA<br>EGITEKO<br>ESNE<br>ESALDI |                               | UGAZTUN<br>HARAGIJALE<br>ZAMARIARI<br>TXALMA<br>JARRI |
| IZAN, EDUKI<br>PERTSONAIA-<br>REN IZENA               |                                |                                          |  |                                             |                                                                                                   | KANDELE-<br>TAKO HARIA           |                   |                                    |                               |                                                       |
|                                                       |                                |                                          |  | GABEZIA<br>NAFARROAKO<br>UDALERRIA          |                                                                                                   | UGARIAK<br>ARGI,<br>GARBIKI      |                   |                                    |                               |                                                       |
| ENERGIA<br>MUSIKA<br>MOTA                             |                                | UKAPEN<br>ZAMBIAKO<br>HERRITAR           |  |                                             |                                                                                                   |                                  | MORDO<br>OGIDUNAK |                                    |                               |                                                       |
|                                                       |                                |                                          |  | ELEMENTU<br>KIMIKOA<br>ZIGORTZEKO<br>MAKILA |                                                                                                   |                                  |                   | MILITRO<br>MUNDU<br>FISIKOA        |                               |                                                       |
| SAMARIAKO<br>HERRITAR                                 | AR<br>SORTZAILEA<br>DIRUDIENEZ |                                          |  |                                             | PERTSONAIA-<br>REN ABIZENA<br>ZUBEROAKO<br>HERRIA                                                 |                                  |                   |                                    |                               | UGAZTUN<br>KARRASKARIA                                |
|                                                       |                                |                                          |  |                                             |                                                                                                   | BUZTAN<br>HARREMANA,<br>ERLAZIOA |                   |                                    |                               |                                                       |
| NIOBIOAREN<br>SINBOLOA<br>TXIKI                       |                                | BORROKAN<br>PILOTAN,<br>TANTO<br>ZIUURRA |  |                                             |                                                                                                   |                                  |                   | LISTUA<br>DUT (ALDE-<br>RANTZIZ)   |                               |                                                       |
|                                                       |                                |                                          |  | JAUTIGAI<br>BAT BOTA<br>DEZIMETRO           |                                                                                                   |                                  |                   |                                    | GIGA<br>TULIOAREN<br>SINBOLOA |                                                       |
| ZAILAGO<br>BIHURTU<br>BARKATZEKO<br>EKINTZA           |                                |                                          |  |                                             | AZTERTU<br>NITRO-<br>GENOA                                                                        |                                  |                   |                                    |                               |                                                       |
|                                                       |                                |                                          |  |                                             |                                                                                                   |                                  |                   | XAKEAN,<br>ERREGINA                |                               |                                                       |

Kike Amonarizen umorea

### Bushen erabakia Wikileaks-en

Wikileaks-ek oraindik ere bere rekin bilduta zegoela hala hasi webgunean zintzilikatu ez dituen omen zen hizketan: arren, Bush semeak bere agintaldian hartu zuen erabakirik garrantzitsuenaren inguruko agiri ezkutu batzuk eskuratu ahal izan ditugu. Berauei esker, Bush semeak erabaki hori nola hartu zuen jakin ahal izan dugu. Presidenteak bere Kabinetea-



– Izuarekin eta terrorismoarekin amaitzeko, ezinbestekoa dugu menpean dituen lurraldeak ahalik eta azkarren gureganatzea. Eta batez ere, eta beste guztien aurretik Aftan... Gafan... Anfagis... Gafastin... Irak!

### Soluzioa

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | U | I | E | J | S | N | T | Z | B |
| R | U | N | E | A | A | B | T | A | A |
| K | A | A | K | I | A | A | P | I | K |
| K | I | I | E | T | A | A | R | I | A |
| L | A | N | Z | A | R | S | T | U | E |
| A | P | N | O | L | A | K | I | A | N |
| T | X | A | P | I | O | A | S | A | D |
| M | P | A | M | A | U | N | A | T | A |



**arabako  
bertsolari  
txapelketa  
2011 bete!**

# finala

Apirilak 2, larunbata  
17:30ean **GASTEIZ**  
Printzipal Antzokian

Manex Agirre  
Oihane Perea  
Asier Otamendi  
Iñaki Viñaspre  
Zigor Enbeita  
Ander Solozabal



Aurkezlea: Lierni Altuna  
Gai-jartzailea: Idoia Beitia

**Sarrerak salgai:**  
[www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu)

Antolatzailea

Babesle Nagusiak



# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Ipar Euskal Herrian erradioaktibitate maila ezagutu ahal izango da

FRANTZIAKO Erradio-babeserako eta Segurtasun Nuklearreko Institutuak (IRSN) publikoaren esku jarri du Frantziako Estatuko hainbat lekutan partikula erradioaktiboen kopurua neurtzeko tresna, Criter deiturikoa. Japonian gertatzen ari den krisi nuklearra dela-eta, interes berezia dago jendartearen norbera bizi den tokiko erradioaktibitate maila ezagutzeko.

Tresna webgune bat da: [criter.irsn.fr/exercice/acteur](http://criter.irsn.fr/exercice/acteur). Ordubeteko atzerapenarekin, Frantziako hainbat lekutan dagoen gamma izpien kopurua erakusten du. Gamma izpiak gune atomikoen bihotzean gertatzen diren prozesu nuklearren ondorioz sortzen dira, eta atmosferan dagoen erradioaktibitatearen adierazle egokiak dira.


Datozen egunetan beste zenbait datu erakutsi nahi dituzte aipatu webgunean, esaterako, aerosolen maila edota euri-maila neurtzen dituztenak.

Webgunearen bihotza hainbat puntu azaltzen dituen mapa da. Puntu horiek berdeak edo urdinak —norberaren monitorearen arabera— baldin badira, erradioaktibitate maila baimendutako tartearen barruan dagoela esan nahi du; kolore horiak maila hori gutxienez baimendutakoa baino hiru aldiz handiagoa dela adierazten du.

## Merkurioren orbitan dago jada Messenger espazio-zunda

MERKURIO Eguzki-sistemako planetarik txikiena da, eta Eguzkitik hurbilen dagoena. NASAk Messenger zunda bidali zuen hara 2004an. Messenger aspalditik ari zaigu Merkurioko irudiak bidaltzen, baina zientziarentzat interesgarrienak diren datuak lortzeko ezinbestekoa zen zunda planetaren orbitan kokatzea. Eragiketa horrek arriskuak zituen, baina iragan martxoaren 18an, propulsiio-sistema hamabost minutuz aktibatu ondoren, arrakastaz burutu zen maniobra.

Martxoaren 23an zundaren neurketa-instrumentuak piztu ziren, eta apirilaren 4an hasiko da datu bilketa. Datozen hilabeteetan Messengerrek Merkurioko hainbat sekreturen berri ematea espero da.



WWW.ASTRONAUTINEWS.IT

## Elikagaien kutsadura Japonian

CRIIRAD, Frantziako erradioaktibitatearen batzorde independenteko lehendakari Roland Desbordes-ek dioenez, elikagaien kutsadura uste baino larriagoa da —eta izango da— Japonian, haizea herrialdearen erdi aldera bultzatzen ari baita erradioaktibitatea. <http://ttiki.com/25154> (Frantsesez)

## Uraren aurkako isolatzaile hobeen bila

Berogailua pizten dugunean normala izaten da ur zirkuituan zarata entzutea. Zarata hori zirkulatzen ari den ura bat-batean balaztatzean gertatzen diren presio handiengatik sortzen da, eta batzuetan tutueriak hondatzeko arriskua ere egon badago. Une horietan urak duen portaera aztertuz gainazal isolatzaileak hobetu nahi dira.

<http://ttiki.com/25155> (Gaztelaniaz)

## Egipton iraultza, Kairoko museoan lapurreta

Urtarrilaren 28an, Kairon manifestazioa egiten ari zela, lapurreta izan zen Egiptoar Museoan. Hasieran hamazortzi pieza desagertu zirela esan bazuten ere, gerora jakin izan da gutxienez 54 ale izan direla lapurtutakoak.

<http://ttiki.com/25156> (Frantsesez)

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

[www.iametza.com](http://www.iametza.com)

T.943 37 67 16

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Zi, ezkur, kuzkur

INTXAUR ETA GINGIL-HUR BEZALA hur hitzetik etorriko da, noski edo, ezkur. Zi edo kuzkur ere deitzen den ezkurra. Hurra bezala ezkurra ere berebiziko jatena zen garai batean. Txerria, etxeko animalia gus-tukoena izateaz gain, gure aurrekoak gozo eta gori mantendu dituen lauhankakoa da. Harizti ederrik mantentzen duen Ultzama eta inguruetakoa bailaretan ezkurri “pasto” deitzen diote, bazka alegia. Txerria bitarteko, ezkurra urdai bihurtuta gure bazkaren gozagarria egiten zen, urte osorako! Ezkur guztia ez zen, ordea, txerriaren urdailean ehotzen.



PHIL SELLENS-CC BY SA

Ezkurra, *Quercus ilex*.

Erromatarrek Iberiara iritsi ziren garaiko errote-tan aurkitutako irin arrastoak aztertu dituzte. Anali-sion arabera irinaren %44 *Quercus* generoko ezkurre-na da, eta %33 besterik ez laboreena. *Quercus* generoan haritza (*Q. robur*) eta artea (*Q. ilex*) aipatzen dira, batik bat, baina geurean ametza (*Q. pyrenaica*), abaritza (*Q. coccifera*), artelatza (*Q. suber*), haritz kan-dugabea (*Q. petraea*), ametz ilaunduna (*Q. humilis*) eta erkametz (*Q. faginea*) ezkur emaleak ezin ahan-tzi.

Euskaldunon urdailak ere ezkurra beratu eta eho-tzea zer den badaki. Asiatik abiatu eta Mediterraneo-tik barrena lurra lantzen erakutsi zigun Neolitoa iris-terako ezkurretik ederki tirako zuten euskaldunon ha-ginek. Hemen baba eta ezkurarekin egindako ogia jango zen garaian, garia eta beste laboreak mizkinzale mainatsuenen gutizia garestia izango ziren. Jende txi-roarena zen, baita ere, zekalearekin egindako otasa eta, erromatarren bisitaren ondoren, gaztaina-irinez-ko ogia. Ameriketako bueltara arte ere ohikoa izango zen artatxiki-irinezko ogia. Joan-etorri honen ondo-rengoa artoa, arto-irinezko artoa edo opila.

Ezkurrera bueltatuz, Estrabonek duela 2.000 urte idatzi zuen hemen urtearen hiru laurdenetarako nahikoa jaki izaten zutela ezkurarekin, eta haren iri-nez iraupen luzeko ogia egiten zutela. Garai ber-tsuari, Pliniok ere hemengo ezkur irinezko gozokiak aipatzen ditu. Espainian barrena oraindik ezkur ogia topatu daiteke, baita ezkur likorea ere. Hemen jakin-tza hori erabat galdu dugulakoan nago. Garai batean ezkurren artean gozoak, mikatzak, gaziak, eta abar ederki bereiziko genituen. Arteen artean, adibidez, mikatza da *Quercus ilex* subsp *ilex* azpiespeziearen alea, gozoa aldiz *Quercus ilex* subsp *ballota* azpiespe-ziearena.

## Hamaika eta hamalau

Europar ditugun kakalardoehuneko hamaika eta burduntzi edo sorgin-orratzen ehuneko hamalaua desa-gertzeko zorian jarriak ditugu. Nekazaritzaren indus-trializatzea, klima aldaketa, suteak eta lurraren artifizial-tzea dira egoera gorri honen arrazoi nagusiak.

Hau gutxi balitz gure kontinente honetan bertakoak ditugun tximeleten heren bat galzorian dauzkagu, arra-zoi berberengatik.

Handiari soilik begiratzeari utzi eta gure bizitza bere baitan hartu eta eusten duten ekosistemetan animalia txikiok duten garrantzia aitortu beharko genuke, eta zaindu. Gure burua zaintze aldera...

### Bolaleku S.A.T.

Konpost planta

**Bi•lurra**  
Compost ongarri organikoa

**LORE•LURRA**  
Sustrato unibertsala

Lur begetal ongarritua, ereindakoa, estaltzekoa,  
ldor apaingarriak, trabesak.

Bakio bidea, 13 (Emerando)  
Tlf.: 94 674 33 55  
677 42 64 00  
www.bolaleku.com

48100 Mungia  
Bizkaia

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Kristobal Kolon, poloniarra?

MADEIRA, 1436-1456 INGURUAN. Poloniako errege Ladislao III.aren semea jaio omen zen eta seme horrek, urte batzuk geroago, Amerika aurkitu zuen, Manuel Rosa historialari portugaldarraren arabera. Kristobal Kolon almirantea jatorri poloniarrekoa zela, alegia.

Orain arte hipotesi onartuenak dio Kolon Genoan jaio zela, baina Italiar Penintsulan bertan, Savonan edo Nervin jaio zela esaten duenik ere bada. Kataluniarra, galiziarra eta portugaldarra ere izan omen zitekeen eta, teoria berri honen arabera, Portugalgo uharte batean jaio zen, baina aita poloniarra zuen.

Historiako liburuen arabera, Ladislao III.a 1444an hil zen, turkiarren aurkako Varnako guduan. Baina Manuel Rosaren esanetan, Alfontso V.a Portugalgoaren babesean, errege poloniarrak Madeirara ihes egin zuen. Han, aristokrata batekin ezkondu eta seme bat izan zuen. Seme hark Gaztelara bidaiatu zuen espioi portugaldar gisa, eta Errege-erregina Katolikoei bere zerbitzua eskaini bazien, Portugalek Afrikan zeuzkan interesak defendatzeko izan zen, beti ere Rosaren iritziz. Ikerlari portugaldarrek dio Kristobal Koloni buruz gaur egun dugun irudia Baltasar Colombo italiarraren iruzurraren ondorioa dela, hau da, Colombok dokumentuak faltsutu zituela almirantearen herentzia jaso ahal izateko.

Baina Kolonek bestelako oinordekotza ere utzi zuen kontinente zaharrean. Europako lehen sifili epidemia dokumentatua 1495ekoa izan zen eta, orain arte onartu den tesiaren arabera, gaixotasuna Kolonen eskifaia ekarri zuen Amerikatik Europara. Bada, Brian Connell osteologo britainiarrak lehenago ere European



*Kristobal Kolonen ametsa, Salvador Dalí (1959). Koloni buruz egiten diren zenbait ikerketa ere, itxuraz, nahiko surrealistikak dira; poloniarra zela dioena, esaterako.*

sifilia bazela ondorioztatu berri du. Connellek Erdi Aroko St. Mary's Spital hilerriko 5.837 gorpuren arrastoak aztertu ditu eta horietako 25etan sifiliaren ustezko sintomak topatu ditu. Karbono-14aren bidezko datazioaren arabera, horietako bi gorpu 1200-1250 urte ingurukoak lirateke eta beste bost, 1250-1400 ingurukoak. Kolon Amerikatik itzuli baino lehenagokoak, beraz.

Dena den, zenbait adituk teoria honi buruzko zalantzak adierazi dituzte, ikerketa ez delako aldizkari espezializatuaren argitaratu eta datazioak ez direlako beste metodo batzuen bidez egiaztatu. Froga gehiagoren zain egon beharko dugu, Kolon errugabetzat jotzeko edo sifilia ekarri izana poloniarrei leporatzeko.

## Arrastoak

### Julian Ajuriaguerra psikiatraren mendeurrena

JULIAN AJURIAGUERRA neuropsikiatra eta psikoanalista ezaguna Bilbon jaio zen 1911ko urtarrilaren 7an. Mendeurrenaren aitzakian, Eusko Ikaskuntza psikiatraren omeneko jardunaldiak antolatzen ari da, *Ajuriaguerraren pentsaeraren gaurkotasuna: pazientearen ikuspegi globala* izenburupean.

Jardunaldiok ekainaren 10ean eta 11n burutuko dira, Bilbon eta Baionan, hurrenez hurren. Nazioarteko adituak bilduko dituzte Ajuriaguerraren alde biografikoa nahiz intelektuala jorratzeko. Bere izena daraman lasaitze metodoaren sortzaileak egin zituen ekarpen nabarmenez gain, berak landutako esparruetan izan diren aurrerapenak ere izango dituzte hizpide jardunaldiotan.

EUSKOMEDIA




Mary Doyle, preso-ohi irlandarra

# «Gose greben garaia oso gogorra izan zen, baina fruituak jaso ditugu»

Bobby Sands eta beste bederatzi lagunek orain 30 urte Irlanda iparraldean heriotzaraino egin zuten gose greba aski ezaguna da. Horren ezaguna ez bada ere, emakume errepublikanoen borrokak ere garrantzi itzela izan zuen gatazkaren bilakaeran, baita presoan estatus politikoa berreskuratzeko kanpainetan. Armagh-eko espetxean (Irlanda iparraldea) 1980ko gose greban parte hartu zuen emakumeetako bat da Mary Doyle.

Testua eta argazkiak:

AMAIA ALVAREZ BERAESTEGI



MARY DOYLEK ongi asko dakizki garai haietako xehetasun guztiak. Denbora luzez mobilizatu ostean, lehen grose greban parte hartu zuen Armagh-eko espetxean. Soldadu britainarrek 1988an Gibraltarren hildako IRAko kide Mairead Farrel zuten buru preso errepublikanoek Armagh-en eta 1980ko abenduaren lehenean hiru emakume egin zuten bat Long Kesh-eko espetxeetako H-Bloketan hasi zuten gose grebarekin. Doyle izan zen horietako bat, 25 urte zituen. “Oso urte gogorrak

izan ziren, ilunak, baina merezi izan du; harro nago egindako guztiaz. Orain 30 urte baino askoz hobe gaude gaur egun”.

Heldu den maiatzaren 5ean –Sands hil zeneko 30. urteurrenean, hain zuzen ere– Irlanda iparraldean hauteskundeak eginen dituzte. Sinn Feinen eskutik, Doylezen izena Belfasteko Udaleko hautagaien zerrendan ageriko da. Pozik dago, ilusioz.

**Zer aldatu zuten gose grebek Irlanda-ko gatazkan?**

Greba horiek egin ez bagenu, ez

ginateke egonen gaur gauden moduan. Hamar lagun hil behar izan ziren mundu guztiak jakin zezan errepublikanoak preso politikoak zirela.

**1974an, 18 urte zenituela, Armagh-eko kartzelan sartu zuten lehen errepublikanoa izan zinen. Nola oroitzen dituzu urte haiek?**

Oso urte gogorrak izan ziren. 1975 bereziki iluna izan zen niretzat. Urte horretan UVF talde armatuak nire ama hil zuen. 24 ordu aske utzi ninduten hileta elizkizunetara joate-



**“Oker geunden, baina une hartan argi genuen Thatcherrek ez ziola hiltzen utziko. Goiz batean jakin genuen Sands hil egin zela. Zaila da deskribatzea sentitu genuena”.**

ko, oso momentu zaila izan zen. Gero, 1976ko martxoan, estatus politikoa kendu ziguten preso errepublikanoei. Urte horretako irailean aske utzi ninduten baina 1977an berriz ere espetxeratu ninduten. Bigarren aldiz sartu nindutenean argi aski utzi zidaten zer zegoen: “Kriminal arrunta zara”.

**Garai horretan hasi zenituzten mundu guztian ezagunak diren protestak.**

Gure estatus politikoa berreskuratzeke, lehenbizi espetxeko lanak egiteari uko egin genion. Bisitak murrizten hasi zizkiguten eta arropa kentzen ziguten miaketak egiteko. Arropa kentzeari uko egiten gintuzten. H-Blokeetan manten protesta hasi zutenean, presoak kartzelako uniformeak eramatera behartu zituztenean, guk nahi genuen arropa jantzi genezakeen oraindik ere. Protesta gisa, IRAko uniformeak eramanez eta gure burua ez gar-

bitzea erabaki genuen. Ziegetan isolatuta mantentzen gintuzten, ez ziguten komunera joaten uzten eta gure gauzak, argazkiak eta abar, apurtu egin zituzten. Espetxea oso zaharra zen eta hotz ikaragarria pasatzen genuen.

**Nola gauzatu zen gose greba egiteko ekimena?**

Komunikazio bikaina geneukan H-Blokeekin eta mugimendu errepublikanoarekin oro har. Egoera jasangaitza zela argi zegoen. Gose greba egiteari buruzko eztabaida hasi genuenean, kalean zegoen jendeak ez zuen proposamena babestu. Baina zerbait egin beharra zegoen gure bost eskariak bete zitezen [nahi zuten arropa eramanez; kartzelako lanak ez egin; beste presoekin taldeak sortzeko eta astero bisita bat izateko eskubidea izan; eta protestak egiteagatik galdutako eskubideak berriz ere jasotzea]. Hala uste genuen Armagh-en eta baita H-Blokeetan ere.

**Urriaren 27an H-Blokeetan lehen gose greba hasi zuten eta abenduaren 1ean, Mairead Farrell, Mairead Nugent eta zuk grebarekin bat egin zenuten. Familiari berria eman zenion momentua gogoan duzu?**

Jakina. Greba egiteko erabakia asko kostata hartu nuen, familia zen kezka nagusia. Nire ama lau urte lehenago izan zen eraila eta nire aita gaixo zegoen. Nire bi anaiak oso txikiak ziren orduan. Asko pentsatu nuen familiarekin, baina grebarekin aurrera egitea erabaki nuen. Gogorra izan zen albiste eman nien unea. Hala ere, ez naiz inolaz ere damutzen, oso harro nago egin genuen borrokarekin. Urte gogorrak izan ziren, baina fruituak jaso ditugu. Familiak, gainera, %110 babestu ninduen.

**Nola igaro zenituzten grebak egunak?**

Greba hasi genuen egunean bertan, hirurak ziega berean sartu gintuzten. Gela bakarrik bi pertsonentzako bazen ere, primeran etorri zitzaizgun elkarrekin egotea. Morala igotzeko balio izan zigun. Ordura arte, janaria oso txarra eta eskasa zen, baina greba hasi bezain pronto gauza izugarri onak ekartzen hasi zitzaizkigun. Uneoro geneukan janaria parean. Bigarren astean ospitale-arreta zeukan beste gela batera aldatu gintuzten eta han sartzeko derrigorrezkoa zen bainatzea. Abendua zen eta otsailetik ez garbitzearen protestan geunden, beraz, pentsa nolako momentua izan zen hura. Hori bai, dagoeneko ahul geunden, kementsu, baina fisikoki ahul. Gogorrena gure adiskideen berri jasotzea zen. H-Blokeetan denbora gehiago zeramaten greban eta batzuk dagoeneko oso gaixo zeuden. Sean McKenna, batez ere.



**1980 eta 1981eko gose grebei buruzko muralak ugari dira Irlanda iparraldean; horietako batzuek emakumeen borroka ilustratzen dute.**

## "Gure ahotsa entzun egiten da, ez gara ikusezinak"

**1983. urtean atera zintuzten espetxetik, harrezkero haimaka gauza gertatu dira Irlandan. 1998an bakea sinatu eta gaur egun Sinn Feinek unionistekin konpartitzen du Gobernu Stormonten.**

Gauzak asko aldatu dira, hobera, gainera. Adibide bat jarriko dizut: guk ez genuen izan aukerarik gaelikoa ikasteko, baina gure ilobak eskola gaelikoetara joaten dira. Oraindik ere egunero egiten dugu borroka; egunero ditugu batailak Stormonten, udaletan... Guretako asko daude orain instituzioetan, gure ahotsa entzun egiten da, ez gara ikusezinak.

**Irlandako hegoaldean otsailaren 25ean hauteskundeak egin zituzten. Fianna Fail hondoratu eta Fine Gael eskuratu du Gobernu Alderdi Laboristarekin koalizioa eginez. Era berean, Sinn Feinek emaitza historikoak lortu ditu, lau aulki izatetik hamalau izatera pasa baita. Zer nolako hausnarketa iradokitzen dizu Gobernu aldaketak?**

Errepublikanoek oso emaitza onak eskuratu zituzten eta hori hasiera besterik ez da izan. Hemendik aurrera, Sinn Feinek oposizio handia egin ahalko dio Dublingo Gobernu berriari.

**Hegoaldeko emaitzak ikusi ondoren, inkestek diote balitekeela Sinn Fein lehen indarra izatea iparraldeko hauteskundeetan. Zein aldaketa aurreikusten dituzu Martin McGuinness ministro nagusi bilakatzen bada?**

Lehenik eta behin, horrek esan nahiko luke Sinn Feinek ministeritza gehiago kudeatu ahalko litzukeela. Herritarren berdintasunaren alde pauso gehiago eman ahalko genituzke.

**Londresetik ezartzen diren murrizketei aurre egiteko aukera gehiago egonen lirateke?**

Horien aurkako ahotsa indartsuagoa izanen litzateke. Zoritxarrez, orde, murrizketak, batzuk behintzat, ezin dira saihestu.

**Oraindik ere badira borroka armatua-rekin jarraitzen duten talde batzuk.**

Bai, baina ez dute herriaren sostengurik, oso minoritarioak dira eta ez dute inolako estrategiarik. Indarra dutela erakutsi nahi badute, hauteskundeetan aurkeztu daitezela. Hedabideek beren indarra neurriz kanpo balioztatzen dute.

**Euskal Herrian bake prozesu bat haste-ko beharra betidanik babestu du Sinn Feinek. ETAk su-etena iragarri ondoren eta ezker abertzaleak Sortu aurkeztu eta gero, zein unetan ikusten duzu euskal gatazka?**

Ezker abertzalea legeztatzea ezinbestekoa da. Hori izan beharko litzateke hurrengo pausoa bakea lortzeko. Gure kasuak gauzak aldatu ahal direla erakutsi duela uste dut: Sinn Feinek hedabideetan hitz egitea debekatua zuen 1990eko hamarkadan, eta orain, egunetik egunera gero eta gehiago indartzen ari da.

Abenduaren 18an iratiaren bitartez enteratu ginen gose greba bertan behera geratu zela. Hurrengo egunean, amaitu zela konfirmatu genuenean, guk ere utzi genuen.

**Ordea, Britainia Handiko Gobernuak zuen eskakizunei muzin egin zien.**

Bai, hala izan zen. Gabonak pasa zirenean bigarren gose greba bat egiteko aukera eztabaidatzen hasi ginen. Beste lagun batzuekin batera, greba egiteko izena eman nuen berriro. Orduan, baina, lehen greba bukatu ondoren aitak egin zidan bisitarekin hasi nintzen gogoratzen. Ez dut inoiz bere begirada ahaztuko. Buelta asko eman ostean, nire izena ezabatzea erabaki nuen. Buruari eragin genion eta azkenean Argamghen preso gutxi ginela eta, pentsatu genuen ez genuela izanzen indar aski bigarren gose greba bati aurre egiteko. Bobby Sandsek greba hasi zuenean, martxoaren lehenean, lan ez egitearen protestarekin jarraitzen genuen Armaghen; beraz, isolatuta jarraitzen genuen.

**Maiatzaren 5ean Bobby Sands hil zenean, zein zen sentsazioa Armagheko espetxean?**

Hori baino lehen, Sands Westminsterreko parlamentari izan zen hauta-

terreko parlamentari izan zen hautatua. Ederki gogoratzen dut albiste hori jaso genuen eguna. Hunkigarria izan zen. Oker geunden, baina une horretan argi geneukan Thatcherrek ez ziola utziko hiltzen. Goiz batean jakin genuen Sands hil egin zela. Zaila da deskribatzea sentitu genuena. Haserre geunden, zapuztuta, bihotza apurtuta geneukan. Ez genuen ulertzen Gobernu britainiarrek Sands hiltzen utzi izana; ez genuen ulertzen Eliza katolikoak eta Estatu libreko agintariek behar adina presio egin ez izana. Gainera, ezin genuen protestarik egin ziegatik ezin ginelako atera. Beste lagunak hiltzen hasi ziren heinean, mina handituz joan zen. Hala ere, bizkarra harresia- ren kontra duzunean, nonbaitetik indarra eskuratzen duzu.

**Emakumeek egindako protestak ez dira oso ezagunak izan.**

Hala da. Baina emakumeon protestek ekarpen handia egin diete borroka errepublikanoari. Emakumeen ekintzak ez dira oso mediati-koak izan; gose grebetan, adibidez, ez zen hildakorik egon Armaghen eta horrek erantzukizun mediatikoa txikitzen du. Halere, emakumeen papera Irlandako borrokaren zuta-

beetako bat izan da, eta bada oraindik ere. Urte gogorrenetan, komunitateari kemena emateko giltza izan ziren emakumeak.

**Oraindik ere gutxi dira Irlanda iparraldean bizitza publikoan eta politikan parte hartzen duten emakumeak.**

Berdintasuna lortzea erronka handia da oraindik ere, baina orain errazagoa da emakumeontzat politikan aritzea, ez dugu zertan etxean egon behar umeak zaintzen. Sinn Feinek, adibidez, emakumezko zinegotzi eta parlamentari ugari ditu. ■

**SOLOZABAL**

*Eskura ezazu teorikoa 5 egundatan  
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

[www.solozabalautoeskolak.es](http://www.solozabalautoeskolak.es)

## Zentral nuklearrak

# 66 erreaktore nuklearren ondoan bizi gara

Euskal Herri inguruan 66 erreaktore nuklear daude. 8 Espainian daude, eta 58 Frantzian. Horietako 4 gure mugetatik 5 eta 200 kilometro arteko distantziara daude.

DANIEL UDALAITZ

JAPONIA EGOERA LARRIAN DAGO joan den martxoaren 11n gertatutako lurrikararen eta hondamendi nuklearraren ondorioz. Horrek energia nuklearraren egoerari buruzko eztabaida eragin du Euskal Herrian eta mundu osoan. Hori gertatu baino lehenago, Espainiako Gobernuak nuklearren bizitza luzatzeko aukera aztertzen ari zen —horien artean Garoñakoarena, Euskal Herriko gertuen dagoen zentral nuklearrarena— eta mahaigaineratu zuen energia nuklearra beharrezkoa zela energia-etorkizuna bermatzeko. Japonian gertatu den hondamendi nuklearrak itxaropen horiek zapuztu ditu eta, une batez bada ere, eztabaida bertan behera utzi dute. Industria eta finantza talde handiek, aldiz, hor jarraitzen dute; izan ere, beren *lobby*en eta baliabide mediatikoen babesa dute. Giroa baretzen denean, orain gori-gori dago-eta, eztabaidari eutsiko diote berriro eta presioa egingo dute munduan energia nuklearra erabiltzen jarrai dezagun, bai eta gehiago erabil dezagun ere.

Testuinguru hori abiapuntu hartuta, zein da Euskal Herrian eta munduan energia nuklearraren egoera?

Egun 442 erreaktore nuklear daude martxan eta 65 erreaktore ari dira eraikitzen munduko hainbat lekutan. Euskal Herrian ez dago zentral nuklearririk martxan. Dena den, hainbat zentral gugandik oso gertu daude. Beraz, Japonian gertatutako hondamendi nuklearraren antzekorik gertatuko balitz, arriskuan egongo ginake.

### Euskal Herria lau erreaktore nuklearrak setiatuta

Euskal Herrian denbora asko egon gara zentral nuklear bat eraikiko zuten beldurrez, esate baterako, Lemoizen. Azkenean, zentral hori ez zuten eraiki. Dena den, Euskal Herria leku arriskutsuan dago; izan ere, gure herrialdea 66 zentral nuklearrerekin inguratuta dago eta horietako lau oso gertu ditugu. Espainiako estatuan zortzi erreaktore daude eta guztira 7.727 megawatteko ahalmena dute; Frantziako estatuan, berriz, 58 daude eta guztira 63.423 megawatteko ahalmena dute.

Hauek dira Espainiako 8 erreaktore nuklearrak: Garoña —Euskal Herriko gertuen dagoena—, Almaraz I eta II, Asco I eta II, Cofrentes, Tri-

llo eta Vandellós II. Frantziako 58 erreaktore nuklearratik hiru aipatuko ditugu, Euskal Herriko gertuen daudenak, hain zuzen ere: Le Blayais-eko biak (I eta II), Braud et Saint Louis departamentuan, Bordele ondoan; eta Golfech-ekoa, Tarn-et-Garonne departamentuan, Tolosa ondoan.

Gure herrialdea 4 erreaktore nuklearrerekin inguratuta dago eta erreaktore nuklear horiek Euskal Herriko mugetatik 5 eta 200 kilometro arteko distantziara daude. Garoña Burgosen dago eta 466 megawatteko ahalmena du. 1971n eraiki zuten eta Arabatik 5 kilometro dago. Frantziako hiru erreaktoreak, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beheretik 200 kilometro dago, gutxi gorabehera. Le Blayais-eko zentral biek 910 megawatteko ahalmena dute, eta 1981ean eta 1983an eraiki zituzten. Golfech-eko zentralak 1.310 megawatteko ahalmena du eta 1991n eraiki zuten. Le Blayais-eko zentral nuklearra da Frantziako hiru zentral garrantzitsuenetako bat.

Zentral horiek guztiek azken urteetan istripuren bat izan dute instalazioetan —esate baterako, uholdeak

Blayais-ko zentralera ikasleek egindako bisita




## Ez dugu kostalde nuklearrik

Zorionez, Euskal Herrian oraingoz ez dago zentral nuklearrik. Hala eta guztiz ere, 60ko eta 70eko hamarkadetan hainbat plan egin ziren Hego Euskal Herriko kostaldean zentral nuklearrak eraikitze-ko. Zentral nuklearrak Lemoizen, Ea-Ispasterren eta Deban egitea proposatu zuten. Lemoizen (Bizkaia) hasi ziren: Iberduero elektrizitate-enpresak, egun Iberdrola deritzonak, bi erreaktore nuklear eraiki zituen. Erreaktore nuklear horiek prest zeuden 70eko urteetan abian jartzeko.

Iberdueroren, Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren plan horiek –EAJk kudeatuak–, bertan behera gelditu ziren herritarren oposizioari eta ETArek esku-hartzeari esker. Herritarrek manifestazio itzelak egin zituzten, eta ETArek esku-hartzeak hainbat hildako eragin zituen –zentrala eraikitzen ari ziren langileak, erakunde armatuko militanteak, eta Iberdueroko ingeniari bat–. Ondorioz, inoiz martxan jarri ez ziren bi erreaktore haiek betiko geldiaraztea lortu zuten. Gainerako proiektuak ere bertan behera gelditu ziren. Basordaseko kalara joaten denak munstro hura ikusiko du oraindik ere; izan ere, ez dute eraitsi. Euskal Kostalde Ez Nuklearraren Aldeko Batzordea 1976an eratu zen. Batzorde historiko hartako arduradunen lana, gizon eta emakume haien lana, aitortzeko eta eskertzeko garaia da oraingoa.

### Zentral nuklearren distantzia EHko erdigunearekiko



eta suteak–; dena den, istripu horiek ezin dira alderatu Japoniako Fukushima gertatutakoarekin. Hala eta guztiz ere, hondamendi nuklearra gertatuko balitz, Japoniakoaren larritasun berekoa izan edo larritasun gutxiagoa izan, Euskal Herriko biztanleen-

gan eragingo luke.. Argi dago Garoñako zentralak eragingo lituzkeela ondorio larrienak; izan ere, istripu nuklearren ebakuazio-planek zentraletik 30 kilometrora dauden biztanleak ebakuatzen dituzte. ■

## AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1  
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

[aquariumss@aquariumss.com](mailto:aquariumss@aquariumss.com)  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Rosa Calafat  
Hizkuntzalaria

# «Katalana ez dago minorizatu- debekatua dago»

Filologia Katalanean doktore, hizkuntzalaritzako eskolak ematen ditu Rosa Calafatek (Andratx, 1963) Universitat de les Illes Balears-en. Iaz, soziolinguistikako bi saiakera argitaratu zituen, *Torcebraç entre dues cultures* eta *Per a un ús ètic del llenguatge*.

ARITZ GALARRAGA  
Argazkiak: Oriol Clavera



Demokrazian bizi gara, Rosa, eskola katalanez da, komunikabide saldo bat ere bai, jende askok daki katalana... Baten batek esango dizu lana egina dagoela.

Diskurtso hori asko saltzen da, hain ondo ezen hizkuntza komunitatetik

kanpoko taldeetan pentsatzen baita katalanak beti gaudela eskean, protestatzen, nahi dugunean hitz egiten dugula... Errealitatea beste bat da: proposatzen duzu zinemaren %50 katalanez izatea eta zerua eskatzen ari zarela dirudi, zerbait histrioni-

koa, lekuz kanpokoa. Jendeak uste du dena egiten dela katalanez, baina hona etorri eta ikusten dute ez dela hala. Fedea izan nahi nuke eta sine-tsi lana egina dagoela, modu horretan osasunez ere hobeki nengoke, baina marrazki bizidunen pelikula

bat ikusi nahi badu haur batek ezin du sarri, taberna batera joan, kafea eskatu eta esan diezazukete ez dizutela ulertzen.

### Katalana ez da beraz hizkuntza normalizatua.

Ez, katalanak 300 urtez jasan ditu debekuak. Noski, errekupeazio oasiak ere pasa ditu, baina inork ez dizu ziurtatzen ez duela berriaz desertu gorria pasa beharko. Orain oasi txikian gaude, hemendik hamar urtera zer gertatuko den ez dakit.

**Zure kezken artean nagusietakoa katalana husten ari dela, nolabait esatearren, hitz katalanekin hitz egiten dela baina gaztelaniaz, edo, hobe esan, gaztelar batek bezala.**

Hori da, gaztelaniaz pentsatzea hitz katalanekin. Oso arduratzen nau, hizkuntza ez baita hitzen bilduma soila, hizkuntza batean pentsatu ere egiten da. *“Me pone como una moto”* katalanez esateak ez du zentzurik, badago hori dioen hizkuntza bat, *“m’encén la sang”* edo *“em puja la sang a la cresta”* ditugu gurean. Hortik aurrera du zentzua hizkuntza honek, katalanak edo dena delakoa, hizkuntza batek zentzua baitu errealitatearen gaineko ikuspuntu ezberdina emateko kapaz den momentutik.

### Baina katalanak bizi duen prozesua hori da, gaztelaniartzea.

Katalanak zortea izan du: garai jakin batzuetan hainbat jenio izan ditu. Pompeu Fabra, Antoni Maria Alcover, Joan Coromines, idazle handiak, itzultzaileak, Carles Riba. Jende horrek hizkuntza bat egin zuen, idatzia, kalitate ikaragarrikoa. Egin eta esan zuten, to, baduzue XXI. menderako hizkuntza. Ahozko hizkuntzarekin ez zegoen arduratzeko motiborik, erabilerazko hizkuntza baitzen. Geure belaunaldia katalana da, neroni Mallorkako katalana, eta ez liburu batek esan digulako, ez telebistak, baizik eta oparitu didatelako hizkuntza, nire hizkuntza, ahozkotasan ikaragarrikoa, non sartzen ziren Jaume erregea, Mediterraneokoan zeharreko balentriak, eta abar. Eskola gaztelaniaz izan zitekeen, baina Mío Cid martetarra zitzaidan, nire errealita-

tea beste bat zen erabat. Katalanak ahozko aberastasun izugarria zuen. Noiz hautsi da hori? Oraintxe, ahozko hizkuntza hizkuntza mediatikoak ordezkatu duenean, ahozkotasan diferitua sortu denean, Internet, telebistak kutsatua. Frantsesak onik atera dira nolabait, espainiarrak ahaleginak egiten dituzte, eta katalanak ez dugu lortu.

### **“Zure hizkuntza hitz egiteagatik kalean iraintzeak ez du izenik, ez da humanoia; hori zure etxean egitea, gainera”**

**Zeintzuk dira bigarren aldiko ahozkotasan hori lortzeko trabak bada?**

Niretzat, dialektalizazioa, hau da, pentsatzea hitz bat ez dela ahozko hizkuntzakoa, baizik eta dialektala, eta beraz, ez komuna. Lurralde bat erkidego autonomo edo estatuatan fragmentatzearen ondorioa da. *“Xalar”* aditzak erabilera arrunta du, lagunartekoa, Menorca edo Tarragonan, baina estandarrean inork ez du *“xalar”* erabiltzen, jendeak *“disfrutar”* esaten du. Hizkuntza kolokiala da, beraz, gaztelania delako, eta *“xalar”* dialektalismoa, leku jakin batzuetan baino ez baita erabiltzen. Hori nola konpondu, horra arazoa. Ez bagara jartzen hori egitera, orain arte bermatua geneukan erabilera eremu bat, herentzian jaso, galduko dugu.

**Fragmentazio politikoak zer kalte egiten dio hizkuntzari?**

Tarteka esaten dute valentziera ez dela katalana, eta hori zorigaitz bihurtzen da, harlauza errealitatearen gainean. Berdin dio egia den edo ez, egia zientifikoek ez dute sobera inporta, ez arrazoiek, aurka sinergia batzuk sortzen direnean. Katalana hizkuntza bat dela, Salsesetik Guardamarrera eta Fragatik Maora? Inporta al du gehiegi desprestigio sinergien aurrean? Ez. Ez da argudio filologikoen inguruko aferra, fede kontua baizik.

**Ados, gaur egunean ez dago inor katalanaren aurka, baina, Joan Fus-**

**terrek zioen bezala, “orain laudatuz saiatzen dira deuseztatzen”.**

Nik esan dezaket libertatea defendatzen dudala munduko pertsonarik autoritarioena izanik. Hizkera nire komenientziara erabiltzea da hori. Hizkuntza aniztasunaren alde nago, aniztasun horrek hizkuntza jakin bat defendatzea esan nahi ez duen bitartean. Ingelesa, frantsesa, txinera nahi baduzu, baina katalana? Lau katuren kalaka da, lehenik argitu beharko genuke mallorkera edo valentziera den, katalana bada inposaketa da, valentziera bada, gaztelaniaren antzekoa denez, tira. Zer ulertzen dugu hizkuntza aniztasunagatik? Termino hutsala da.

**Gertatzen da. Adibidez, Valentzian, Valentzieraren Akademia sortu dute, baina telebista errepikagailuak itxi dituzte, TV3 ezin ikusi ahal izateko.**

TV3 ikustea ez da ekintza politikoa izan. TV3 Valentzian edo Balear Uharteetan ikusi izan bada, ez da politikoei onberatasun eraso izan dutelako: herriak ordaindu zituen telebista errepikagailuak, herriarenak dira. Herriaren aurka egitea da horiek ixtea.

**Independentzia politikoa da batzuen zat soluzioa.**

Inoiz ez dago soluzio bakarra. Hizkuntzak izaki biziak badira, geu bezala, hots, Joan Brossak zioen tridimentsionaltasuna badute, arima, gorputza, burua, irtenbidea ezin da izan bat. Egia da, hizkuntza ez da egun inposatzen, proposatu egiten da, eta onartu, sinergia sinboliko andana jarri behar da martxan. Nola jartzen dira martxan sinergia horiek gizarte demokratikoetan? Ez mailu kolpeekin, baizik eta komunikabideen bitartez, adibidez, kazetariak funtzio garrantzitsuak dute, irakasleak, politikariak, diskurtsoak. Hori guztiori alda daiten gaurtik biharrera? Ez noski. Bidea egin beharra dago. Independentziak lagunduko luke bide hori egiten? Litekeena da, ez legoke hainbeste traba legalik, baina berdin egin beharrekoa litzateke, independentziak berak bakarrik ez du ezertxo ere ziurtatzen, ez bada independentziak egiten utziko lukeen lanak.

**Hizkuntza borondate politikoren menpe dagoela esango zenuke?**

Hizkuntzen geroa botere sinergien menpe dago, politikarien esku noski, baina ez bakarrik, kapital ekonomikoa, kapital mediatikoa... dena sartzen da jokoan. Hizkuntza merkatua da, ondo saldu behar den produktua, eta ez badut ondo saltzen, ez badiot prestigioa ematen, produktu hori armairu barruan geratuko da, itzalean.

**Nola gainditu hori? Hizkuntza minoritarioa ez, baina minorizatua da katalana?**

Hizkuntza minorizatua, erabilera eremu guztiak ez dituena da. Baina ez da hori katalanaren kasua, katalanak erabilera eremu guztiak hunkitzen ez baditu ez da hitzunen zati bat ez delako kapaz eremu guztietan erabiltzeko, baizik eta erabilera eremu batzuk debekatuak dituelako. Hitzun katalan trebatua kapaz da hizkuntzaren erregistro guztiak izateko. Nahiz eta katalana zinema aretoetan debekatua egon, zulo txo bat dagoenean sartzen da. Beraz, katalana ez dago minorizatua, debekatua dago, diferentea da.

**Debekatua esan duzu orain. Terminologia lehorra erabili ohi duzu zure idatzietan, genozidio linguistikoa, kolonizazioa...**

Terminoak, anbiguo ez den hitza omen da. Hizkuntzak bere burua azaltzen duenean zaila da hitzak termino absolutu izatea. Hizkuntza gizarte baten instrumentu bat gehiago baino ez da. Gizartearen parte gisa hizkuntza aurreiritziz betea dago. Aurreiritziak beharrezko dira neurri batean, defendatzen gaituzte, terminoak, hitzak beharrezkoak dira geu babesteko. Arazoa dator ni defendatzen naizenean zu molestatzeko bazaitut. Nik badiot nire hizkuntzarekin genozidio linguistikoa egin dutela, ni ez nau molestatzeko, baina akaso kontzienteki edo inkontzienteki genozidioa egiten duena molestatu du. Terminoak ez dira neutroak, dinamiken produktu dira.



**"Proposatzen duzu zinemaren %50 katalanez izatea eta zerua eskatzen ari zarela dirudi, zerbait histrionikoa, lekuz kanpoko"**

**Elebitasuna zen, adibidez, orain gutxi arteko termino klabea.**

Elebidun izatea, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko kapazitatea izatea da, erabilera eremu guztietan. Bi hizkuntzen erabilera alternatiboa egitea, beraz? Noiz, erabilera eremu berean? Ez. Bat erabiltzen baduzu ezin duzu bestea erabili. Modaren arabera erabiltzen dira terminoak. Diglosia, esaterako. Diglosiak esan nahi du erabilera eremu batzuk hizkuntza bati erreserbatuak daudela, baina ez da kasua, nik erabil ditzaket katalanaren erregistro guztiak.

**Baina ez duzu egiten. Ez dizute uzten?**

Hizkuntza bat debekatua dugu, eta bestea ez. Baina, kasu, bada jendea katalanak gaztelania debekatu egiten duela dioena. Diskurtsoetako bat da: katalanak arriskuan jartzen

du gaztelania. Lehenik, gaztelania ez dakit zenbat mila milioik hitz egiten duten, XV-XVI. mendetik hizkuntza koloniala da. Ni, momentuz, ez nau larritzen bere egoerak. Aldiz katalana ez da hizkuntza koloniala, bere lurraldearen baitan dago, gainera bere lurraldea okupatua izan da. Eta, aldiz, katalanak erabilera eremuak hartzeko pausoa ematen duenean, gaztelania arriskuan jartzen du eta ez bakarrik Katalunian, gaztelania osoa jartzen du arriskuan! Absurdua da.

**Nola errotzen dira halako diskurtsoak?**

Aurreiritziak dira, gizartearen sartzeko errazak, gizakiaren oso oinarritzeko gauza batekin jokatzen baitute, beldurrarekin. Beldurrak babesa eskatzen du, erraia jartzen du. Katalanak badatozela! Funtzionatzen du, liderrak igoarazten dituzten diskurtsoak dira, lider totalitarioagoek beti erabiltzen dituzte. Neurri txikiagoan, edonork erabil ditzake, haur bat dominatzeko, adibidez, oso erraza da. Hizkuntzarekin jokatzeko giza espeziea mugitzen du, hitzen beharrean gaude. Pentsa zeinen erraza den hitzaren bidez kolektibitate bat mugitzea. Nik badiot, "katalana Katalunian ezartzen bada 2.000 lanpostu izango dira arriskuan", nahikoa da norbaitek hori publikatu nahi izatea. Eta, sinetsiezadazu, horrelakoak publikatzen dira.

**Hizkuntza batek irauten du soilik lurralde batean beharrezkoa bada, edo egungo bizikidetzarekin aurrera egin dezake katalanak?**

Nik uste dut gaur egunean pertsonak ezin duela elebakarra izan, nahiz eta hizkuntza hori espainola, frantsesa, italiarra izan. Gaur egunean komunikazio hizkuntza beste bat baita, ingelesa, eta gutxienez, ingeleseko ezagutza batzuk izan behar dituzu, komunikazio hizkuntza gisa behar duzu. Horretan, katalan gisa, ez naiz diferente sentitzen espainol, frantses, italiar batengandik, gutxienez bi hizkuntza jakin behar ditut, lurraldekoa, propioa,



**“Hizkuntza komunitatetik kanpoko taldeetan pentsatzen da katalanak beti gaudela eskean, protestatzen”.**

eta komunikaziokoa. Gero, zer gertatzen da beste hizkuntza batek debekatzen dituen hizkuntzekin? Nola konpondu hori? Gatazka diferentea da, ez da multilinguismoa, ez bilinguismoa, ez hizkuntzen ezagutza. Zer egin dezaket nik hizkuntza bateko hitzunik erabilera eremu jakin batzuk debekatuak dituztenean? Afera politikoa da hori, politikoki konpondu beharrekoa.

#### **Baliagarria al da katalanaren ispilua euskaldunontzat?**

Errealitate diferentetatik abiatzen gara, hizkuntza diferentetatik. Pentsamendua desberdintzerako orduan euskaldunek hobeto daukazue, ez baita hizkuntza erromaniokoa. Egia da zuek eta guk okupazio eredu bera dugula, okupazio prozesuek beti parametro berdinak dituzte, baina hizkuntzak desberdinak

**“Katalanak 300 urtez jasan ditu debekuak. Errekuperazio oasiak ere pasa ditu, baina inork ez dizu ziurtatzen ez duela berriz desertu gorria pasa beharko”**

dira, dinamikak, eta bakoitzak bere etxera begiratu behar du, norbere dinamikari arabera ekiteko. Ez da bizilaguna kopia behar, ez eredurik jarraitu, niri balio izan didanak zuri ez dizulako balio. Quebec-etik ehuneko txiki bat har dezakegu guk, adibidez.

#### **Eta ez errepikatzeko zerbait?**

Ez da katalanek egin duguna, ez euskaldunek, egin digutena baizik.

Zure hizkuntza hitz egiteagatik kalean iraintzeak ez du izenik, ez da humanoa; hori zure etxean egitea, gainera. Herri gehienak gu bezala daude, baina guri buruz ari gara orain. Ez dugu biktima jarrera izan behar, emakume gisa diotsut eta katalan gisa. Sinergia batzuen produktu gara, bai, arazoa da mundu guztiak ez duela sinergia batzuen produktu garenaren kontzientzia, aurreiritziak oso errazak baitira, jendeak uste du molestatzen duela bere hizkuntzan. Dinamika aldatzea erlatiboki erraza da beste energia bat jartzen baduzu zirkulazioan, baina oraingo energia hau dagoen bitartean, zaila. Zaila da hizkuntzen aferra, ez dago formula matematikorik, eta batzuetan gauza txikiak aldatzen dituzte gauza handiak, ez dago dena gure esku. ■

**Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia**

**gure!  
artean!  
euskaraz**



**BFA  
DFB**

## “Kapuko” aldizkaria

E H U K O  
Gizarte eta  
Komunikazio  
Zientzien  
Fakultateko 1.  
mailako hain-  
bat ikasle  
elkartu dira  
eta euskara  
hutsez zen-  
bait euskarri-  
tan kazetari-  
tza praktikara eramatea erabaki  
dute. *Kapuko* du izena paperean  
atera duten agerkariak.  
[www.kapukoaldizkaria.tk](http://www.kapukoaldizkaria.tk) helbidean  
berriz, aktualitateari jarraipena egi-



ten diote eta telebista ere abian  
jarri dute.

## Iruñerriko gazteen mintzaira aztergai

ORREAGA IBARRA irakasleak *Nafar euskaldun gazteen abozko diskurtsoa* izeneko liburua argitaratu du Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskutik. 15 eta 27 urte arteko gazteak hartu ditu, guztiak ikasleekin edo D ereduko eskoletan 3 urtez geroztik ikasiak. Elkarrizketa gidatuak egin ditu batetik, eta bestetik, gazteek beraiek grabagailuak erabili dituzte solasean patxadaz ari zirela grabazioak egiteko. Ibarrek atera

duen ondorio nagusia da Iruñerriko gazteek erregistroak badituztela beraien artean komunikatzeko. Bestalde, gazteek diote konturatzen direla nola gaztelaniara jauzi egiten duten hitz egiteko orduan, naturaltasuna falta zaiela sumatzen dutelako. Askok hitz egin baino idatzi hobeto egiten dute euskaraz. Ikerketa lanaren beste ondorioetako bat da gero eta nabarmenago nahasten dituztela dialektoa eta euskara batua.

## BAHEA

Euskararen Semaforoak  
(<http://euskararensemafora.blogspot.com>) elkarrizketa egin dio Joxe Luis Iturriotz autoeskolako arduradunari:

**Galdera:** Gaur egun, baten batek gidabaimena atera nahi baldin badu, zer urrats egin behar dizkik, eta urrats horietako zer egin zezaketek euskaraz eta zer ez?

**Erantzuna:** Autoeskolan matrikulatzen denak irakaskuntza teoriko guztia euskaraz jaso zezake, gurean behintzat. B gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa ere egin zezake euskaraz, guk duela bi urtetik eskaintzen diagu aukera hori, baina beste gidabaimenak ateratzekoak ez (kamioia, autobusa, motoa, atoa...).

**Galdera:** Zer gertatzen dek azterketa praktikoan?

**Erantzuna:** Praktikoak ez zegoen bermatuta euskaraz. Beren kabuz aztertzaile batzuk saiatzen ari dituk, baina arazoak zeudek. Tristeia dek baina Trafikoko ardura-dunei aldeztu aurretik abisatu ziezagu pertsona batzuek azterketa euskaraz egin nahi dutela, eta, gero, azterketaren egunean ez ziotek aukerarik eman euskaraz egiteko.

**Galdera:** Zer pasa huan zehazki?

**Erantzuna:** Aztertzaileak bi aukera eman zizkian euskaraz egin nahi zuten hiru laguni: gaztelaniaz egin edo etxera joan. Hori bai, dena edukazio onez eta errespetuz. Azkenean, gaztelaniaz egin zitiztean azterketa praktikoak.

Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:  
[www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## TALAIAN

### Apustu kapitalista eta antinazionala

BBK-k, Kutxak eta Vitalek “fusio hotzeko” prozesua hasi dute, marka berria sortzea ekarriko duena. Banku berriak 80.000 milioi euro inguruko aktiboak izango ditu. 365 milioi euroak gainditu zituzten hiruren artean 2010eko etekinetan. Gaur egungo enplegua mantentzen badute, 6.000 langile inguru dituzte eta 884 sukurtsal. Erabaki hori Euskal Herriko kanpokoek inposatu dute eta interes espainiarrei men egiten die. Erabakia, EAJk, PSEk eta PPK babestua, Espainiako Gobernuak hasitako finantza erreformaren barruan kokatu behar da, “Espainiako finantza sistema indartzeko”. Erreforma horrek aurrezki kutxak pribatizatzeari eta bankarizatzeari ateak ireki zizkion.

Hiru euskal kutxa horiek, baimen politikoarekin, apustu kapitalista egin dute, nazionala eta soziala beharrean. Horrela, Euskal Herriaren interesekin bat egiten duten helburutik urruntzen da: indartsua eta kaudimenduna litzatekeen euskal kutxa bakarra sortzea, gutxienez Hego Euskal Herriko lau aurrezki kutxez osatua, Nafarroako CAN barne. Orain, aldiz, interes politikoek eragin dute, batetik BBK arriskatu izana Andaluziako Cajasur kontrolpean hartzea, eta bestetik, CAN Banca Cívicarekin batzea. Helburu nazionala bazterrean utzi dute. Gainera, pribatizatze eta bankarizatze prozesuak, hau da, apustu kapitalistak, obra soziala arriskuan jarriko du. Kutxak pribatizatu eta bankarizatzen badira, ez dituzte erakundeek kontrolatuko (udalak, aldundiak eta sindikatuak). Kontrol hori esku pribatuetan egongo da, akzionista berriengan. Logikoki, etekinak banatzerakoan, interes pribatuak interes publikoen aurka jar daitezke. Azkenean, kaltetua obra soziala izango da, orain arte kutxan ikurra izandakoa. Apustua, zalantzarik gabe, kapitalista eta antinazionala da.

Juan Mari Arregi

## Nazioarteko eragileak, lekuko deserosoak

**ETA-K** isilik jarraitu izan balu, bere isiltasuna susmagarria zatekeela adierazi da zenbait hedabidetan. Hitz egiten badu, aldiz, "publizitatea da" edo "bere bizitzako une gaitzenez nabarmendu beharra". Edo hitz egitekotan, diote hainbatek "bere desagertzea iragartzeko" beharko luke. Edo esaten duena baino "esaten ez duena da garrantzitsue-na". Era denetako adierazpenetarako ematen du ETAre azken agiriak.

Batek daki zer dagoen ETako egungo zuzendaritzaren buruan, batez ere Sortu-ren agerpenaz eta berau aurkezteko moduz. Batek daki zein den bere barne harremanen indarra ezker abertzalean sortu den egoera berriaz.

Eta batek nahiko luke bere desagertzea aspaldi eman izan balitz, edo igandean bertan iragarri izan balu. Baina hala izan ezean, batek ondo baloratzen du azken agiriaren edukia, hainbat arrazoiengatik: bat, urtarrean iragarritako su-etena berretsi du (Espainiako bi ministro poztu dira horregatik); bi, su-etena modu formal batez egiaz-tatu ezin bada, izan bedi "egiazta-tze informal" bidez (malgutasun

adierazle); hiru, euskal gizartearen "aurrerapausoak" antzematen ditu (gizarteko gainerakook bezala); lau, urtarreko agiriaren bukaeran, "egiazko egoera demokratikoa lortu arte", ETak borrokan jarraituko zuela adierazi izana "prozesu demokratikoa"-rekiko zaintza gisa hartu zen eta asmo hori arbuia-tu zuten askok, orain ez da halakoren zantzurik.

Oso posible da maiatzaren 22aren aurretik ETak berriz zerbait adieraztea, hauteskunde garrantzitsu askoren atarian egin ohi duen lege-z. Hala balitz, ona litzateke argi adieraztea bere etorkizuna Gernikako Ituneko edukietan dagoela.



ARGAZKI PRESS / MONIKA DEL VALLE

**ESPAINIAKO** Auzitegi Goren-ean agertutako banaketak (zazpi legeztatzearen alde eta bederatzi aurka), Auzitegi Konstituzionala Sortu legeztatzearen alde ager litekeen susmoa barreiatu du. Eta oso gaitza izango bada ere, ebazpena apirilaren 18a baino lehen eman dezakeela. Auzia-ren izaera eta tamaina kon-tuan izanda, hori litzateke logikoena eskubideen auzite-gi garantista batean. Baina, Sorturen estatutuak legezko-

ak direla onartu ondoren, logikoa-go zen Auzitegi Gorenak bere epaia sinesgarritasunean baino frogetan oinarritzea, eta ez zuen egin.

Auzitegi Nazionalak iaz Egun-karia auziko auzipetuak absolba-tu zituen akusazioak frogetan baino "perituen" -Segurtasun Indarren- ustean oinarritzen zire-lako. Berdin gertatu da aurtten Udalbiltza auziarekin. Zentzu juri-dikotik aztertuta, beraz, horrega-tik da hain ulergaitza orain Auzi-tegi Gorenak beste bi auzi horietako akusazioen jokamolde bertsua erabiltzea; eta horregatik da hain ulergarria kontrako zazpi boto izatea.



**Ekain** berri



**Euskal  
Kulturaren  
sustraiak**

Sarrerren salmenta | Venta de entradas

**ONLINE**

[www.ekainberri.com](http://www.ekainberri.com)

943 86 88 11

PELLO ZUBIRIA

# Txernobyl+25: belaunaldi berriak eztabaida gaztetzen

Euskal Herriko belaunaldi oso bat Lemoizko zentralaren gatazkak markatu zuen duela 30 urte. Bost urte beranduago Txernobylgo hondamendiak oihartzun gutxiago izan zuen: erradioaktibitatea bezala eztabaida ere itotzeko balio dukete

Bidasoak eta Pirinioek. Berriz abiatzen da debatea Fukushima zentralarekin... Hegoaldean minus 25etik.

NUKLEARREN ALDEKO ARGUDIOAK behar badituzu, ez galdu denborarik hemengo fisikako katedradun aspergarriekin edo Repsol (Petronor...) bezalako konpainien soldatapeko komunikatzaileekin: letu *The Guardian* egunkariko George Monbioten azkena –ingelesezko originala frantsesez ere eskuragai dago, baliteke lerrook inprimategitik ateratzerako gaztelaniazkoa pronto egotea– eta horrekin kargatuta dauzkazu bateriak puska baterako. Urruti helduko diren argudioz.

Labur dezagun euskaraz “Fukushimak eraman nau kezka ahaztu eta energia nuklearra maitatzera” lerroburu daraman pieza, *Guardianen* webgunean azaldu eta egun bitan 1.500 erantzunez goiti bilduak zituen. Monbiot ingurumen gaietako erredaktoreburua da, espezialista ezaguna, NET HURBIL honetan behin baino gehiagotan aipatua. Beti izanik eztabaiden zale, oraingoan zinez lortu du zalaparta galanta.

Artikuluaren hasieratik aitortu du Monbiotek hemendik aurrera ez dela gehiago neutrala izango nuklearraren gaian. Ez da nuklearraren alde mintzatu den lehenbiziko ekologista, urrutitik ere ezin konparatu Gaia hipotesia sortu zuen James Lovelockeen maila teorikoan, baina *The Guardian*etik daukan oihartzunagatik erreferentziatzat hartua izango da

gaurgero. Ondorengoak bere ideiak dira, “omen” gehienak kenduta.

Fukushimako istripu larria izan da, japoniarrek segurtasun sistemak oker usatzeagatik gertatua. Baina ez du orain artean pertsona bakar bat ere hil. Berde jendeak esajeratu egin du hango erradiazioen kaltea, lehen Harrisbourgeko Three Mile Islandekoarekin egin zuen moduan.

Nuklearra ikatza baino garbiagoa dela esanik, Monbiotek ere nahiko luke energia berriztagarriak askoz gehiago zabaltzea. Baina erne berriztagarriekin ere: eragin kaltegarriak dituzte paisaia eta jendearen bizimoduan, asko dira kexu energia urrundik ekartzeko azpiegiturez, mendietan edo itsasoan haize errotek egiten duten inpaktuaz...

Energia lekuan bertan modu deszentralizatuan sortzea aipatzen dute azpiegitura erraldoien soluziotzat, baina hori ere ezin izan liteke, dio Monbiotek. Behintzat Britainia Handia bezalako lekuetan herriak eta etxeak nola antolatuta dauden ikusita, eoliko eta fotovoltaiako txikiak ez lukete aski errendimendu emango. Fabrikak, trenak eta abar elikatzeke maila handiagoko energi iturriak behar dira.

Ez hori bakarrik, gaizki erabiliz gero berriztagarri horiek ere oso kaltegarriak gerta litezke. Britainia Handian antzina bi hondamendi latz era-

Matome izeneko blog batetik aterata dago irudietan handiena, haurren artean energia atomikoaren propaganda zabaltzeko banatzen diren orrialde politetako bat. Marrakzi txikia Rue89 gunetik hartu dugu, bera baita Mathieu Gaulèneren artikulua osatzen duten irudietako bat, elektrizitate enpresek nuklearrak sustatzeko daukaten JAERO erakundeak zabaldua. Bertan ikusten da mutikoa zoriotsu lotan, zentral nuklear txiki xar-mant batek elikatzen dizkiolako argia eta tresna elektrikoak. *Lobby* nuklearrak telebistaz haurrei beren asmoak saltzeko darabilzkieen propagandako bideo bi Net Hurbil honen Interneteko bertsiotik ikus daitezke. Irudimena eta dirua latz astindu dituzte nuklearzaleek japoniarren artean Hiroshima eta Nagasakin gertatuen oroitzenak lausotzeko, geroago Txernobylekoa estaltzeko. Argudio berri bat ere bazuten: CO2 isuriak gutxitzen nuklearrak txapeldun direla.

gin (omen, ez ahaztu) zituzten. Bate-tik, erreken indarra errota eta burdinoletarako erabiltzeko eraikitako presek betirako desagertu omen zituzten ur haietan ordura arte hain ugariak ziren arrain asko: anproiak, kolakak, gaizkatak, itsas amuarrainak, izokinak eta beste.

XVII. mendean garraiotarako idiak mantentzeak eragiten zuen gaur bioerregaiek egiten duten kalte bera, gizakientzako jakia falta. Ondoko apuntatu hau: “Edonon erabiliz gero, energia berdea –deszentralizatua, luraren ekoizpenetan oinarritua– askoz kaltegarriagoa zaio giza-diari fusio nuklearra baino”.

## CO2aren kontrako botika onena?

George Monbiotek honela bukatu du lezioa: “Bai, nik ere gorroto ditu industria nuklearraren gezurrak. Bai, gustura ikusiko nuke sektore osoa itzaltzen, baldin eta alternatiba arrisku gaberik balego. Baina soluzio idealik ez da. Teknologia orok dute kostea; energi teknologiarik ezak ere bai. Energia atomikoak jasan du egin dakioken testik gogorrenetakoa, eta eragin txikia eduki du planetan bezala gizakietan. Fukushima bihurtu nau indar nuklearraren aldeko”.

Monbiotek arrazoi baldin badu, arrazoi osoa dute Japoniako herritarrek Fukushima krisia txintik atera gabe jasateagatik. Askok aipatu da



Mathieu Gaulènek artikuluar  
itsatsirik eskaintzen ditu atomikoa-  
ren patronalak zabaldutako bi publi-  
zitate *spot*, marrazki bizidunekoak  
biak. Lehenengo bideoan, familia  
lasai dabil ur ertzean igande pasan,  
aintziratik munstroa azaldu zaien-  
nean; baina hasieran munstro bel-  
durgarria zirudienak esango die oso  
maitekiro: “Ez naiz gaiztoa, ez dut  
CO2rik isurtzen”, agur esan eta berri-  
ro uretara joan aurretik.

Beste bideoan, pinguino a nega-  
rez mintzo zaio mutiko protagonis-  
tari: “Izotzak urtzen ari dira klima-  
ren aldaketagatik”. Baina mutikoak  
lasaituko du: “Laster ez dira gehiago  
urtuko nuklearrei esker, ez dute eta  
CO2ik isurtzen”.

Gainerakoan, industria atomiko  
japoniarrak usatzen ditu munduan  
erabilitako propaganda tresna antze-  
koak: atomo zibilaren museo bat  
dauka Rokkasho-mura herrian ikus-  
gai, zentraletara bisita gidatuak anto-  
latzen ditu, eta abar.

Gaulènek aipamen berezia egiten  
dio hizkuntzari, *lobby* nuklearrek  
zinez lantzen duten gaia delako. Egia  
esan, Euskal Herriatik atera beharrik  
ez dago kazetarien artean arrakasta  
lortu (erosi?) dutela ohartzeko. Isuri  
erradiaktiboak “ke” edo “lurrin”  
bihurtu dira, kasik ez da entzuten  
kutsadura hitzik...

Justu honetan, atomikoen patro-  
nalaren manipulazioan, egiten du  
tupust kronika honen hasieran aipa-  
tu Monbioten tesiak. Hain ona bal-  
din bada, zertarako herritarrak mani-  
pulatu? Ala jendea zozoa denez  
teknokrazia agintzea erabaki da?  
Korporazioen diktaduratik uste  
baino hurbilago gaudeke. ■

zein eraman handikoak diren japo-  
niarrak, xintoismoaren eraginagatik  
omen. Badira, aldiz, uste dutenak  
herritarren konformidade horrek  
halako *zen* espiritu orokortu batekin  
baino gehiago daukala zerikusia  
energiaren *lobby*ek ezarritako desin-  
formazioarekin.

Frantzian *Rue89* hedabide digita-  
lean Mathieu Gaulène kazetariak  
“Marrazki bizidunak, museoak...  
*Lobby* nuklearrak manipulatzeko  
japoniarrak” artikuluan deskribatu  
du zein zorrotz kontrolatzen duten  
nuklearrei buruzko informazioa  
hango korporazioek.

Japoniako argindarraren jabe  
diren enpresek propagandarako  
gerra-makina daukate antolaturik,  
hiru *lobby*tan mamituta. Bata, Japo-


niako Industria Atomikoaren Foroa  
(Jaif, ingelesezko siglengatik): honek  
kudeatzen du Fukushima istripua-  
ri buruzko informazioa, Japoniako  
Segurtasun Nuklearraren Agentzia-  
ren (Nisa) eta zentralaren jabea den  
Tepcoren bidez.

Bia, Japoniako Energia Atomi-  
koaren Harremanetarako Erakun-  
dea (Jaero) okupatzen da nuklea-  
rren aldeko promozio kanpainez,  
batik bat haur, gazte eta emaku-  
meei begira antolatzen dituztenez.  
Kultura nuklearra hedatzeaz, ale-  
gia. Eta hirugarren *lobby*a, Argindar  
Konpainien Federazioa (FEPC),  
beste jarduera askoren artean egun-  
karietan, telebistan eta gainerako  
hedabideetan publizitatea kontrata-  
tzen duena.



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua  
Kalitatea  
Garantia



## Zientzialariak

K

risi ekonomikoak edo tsunamiak Japonian eragindako ezbehar nuklearrak haien presentzia areagotu dute. Komunikabideek ohikoa dute haien azalpenak eta gomen-dioak tartekatzea. Zientzialariak dira, adituak, herritar arruntan ikuspegian konpre-nitzeko zailak diren gauzez asko dakien jendea. Haien jakinduriaren konplexuak erraz eramaten gaitu onartzera haiei entzun eta haien iritziz eta aholkuei men egin behar diegula.

Han-hemenka eta nonahi zientzialarien inguruko aipuak entzunda, Iruñeko gaue-tan “*La lotera*” ezizenaz ezaguna zen ema-kumea etorri zait gogora. Piura bitxiko emakume hark gauak loteria tabernaz taberna saltzen ematen zituen, eta egunak, Iruñeko Udaletxera berriz eta berriz jotzen, “zientzialariekin” hitz egin behar zuela eta bertan hitzordu bat egingo zioten esperan-tzan, batzuetan Jainkoaren partetik eta bes-tetan estralurtarren izenean “zientzialariei” gizateriarentzat funtsezkoa omen zen mezua helarazi behar ziela argudiatuz. Zientzialariak pieza bereko aniztasun santu bat edo osatzen zutela iritzita, ziurrenik.

Emakume hark uste zuenaren kontra, zientzialariak, ikerlariak eta adituak ugariak eta askotarikoak dira, eta haien irizpide eta sinismenak ere, anitzak eta ezberdinak. Zorionez, esango nuke nik (zorionez, bes-telako zientzialariak –*Union of Concerned Scientists* kasu– eta ekonomialariak –adibi-dez, *Les économistes atterrés*– existitzen direla-ko), nahiz eta, zoritxarrez, aditu batzuek beste zenbaitek baino itzal handiagoa duten, eta haien iritziek oihartzun handia-go. Ishibashi Katsuhiko sismologoari, esa-terako, inork gutxik egin zion kasu 2007an *Herald Tribune* egunkarian “lurrikarek aurre egiteko zentral nuklearren ziurgarritasuna murrizteko neurri erradikalak hartu ezean Japoniak laster benetako katastrofe nuklear bat pairatu ahalko zuela” esan zuenean.

Beste edozein asmakuntza humano bezala zientzia ere pertsonen eta erakun-deen ideologiatik eta interesetatik aske ez dagoenez, kezkatu nintzen Espainiako Gobernuak presidenteari energia nuklea-rri buruzko eztabaida “zientifikoa” egin



behar zela, eta ez “ideologikoa”, esaten entzun nionean: zientzia ideologiaren aurretik ezarri eta, aferen gaineko ezagu-mendu konplexua estakuru hartuta, eraba-kiak adituek hartu behar dituztela esaten digutenean ohikoa da ezkutuko interesak izatea jokoan, eta, edozein kasutan, gogo-ratu beharko genuke, Frantzia aldean “laz-turik” dabilzan ekonomialariak dioten bezala, herritarrok hartu beharko genituz-keela, eta ez adituek, guri dagozkigun era-bakiak, modu kolektibo eta demokratikoan.

Zientziek eta teknikek huts egiten dute-nerako, bestelako makuluak behar dira, eta naturari lotuago bizitzeak, literaturak edota historiak zertxobait laguntzen ahal digute. Josu Jimenez Maiak 2005ean *Berrian* argita-ratu eta geroago Patxi Zubizarretak ere jasotako ipuin ekialdetarrean, *Ai Kajiya* neskatilaren aitona sua eman zien zaintzen




Gogoratu beharko genuke, Frantzia aldean ‘lazturik’  
dabilzan ekonomialariak dioten bezala, herritarrok hartu  
beharko genituzkeela, eta ez adituek, guri dagozkigun  
erabakiak, modu kolektibo eta demokratikoan



zituen herriko laboreei, eta horrela, sutetik ihes eginaraziz, itsas ondoan bizi ziren herritarrok mendirantz bideratu zituen. Auzoek, haserre, aitona-biloba inguratu zituzten, xaharraren jokamolde haren zer-gatiaz galdezka. Erantzuna olatu erraldoi batek ekarri zien berehala, lur erre berriak estali zituen. Ipuina XIX. mendekoa da, eta jendea tsunamien arriskuei buruz ohar-taraztea omen du xede. Mende hartan baka-rrik, bi tsunami izan ziren Japonian, eta horietako batek, 1896koak, 25.000 lagun hil zituen. ■

ASTE HONETAKO

# zozketa




## Atxaspi Hotela

Asteburu pasa  
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24  
Lesaka NAFARROA

[www.atxaspi.com](http://www.atxaspi.com)

1



## Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat  
"Discover Scuba" saiorako  
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7  
Getxo BIZKAIA

[www.divetarpoon.com](http://www.divetarpoon.com)

2



## Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat  
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4  
Bilbo BIZKAIA

[www.euskal-museoa.org](http://www.euskal-museoa.org)

3



## Artium

3 harpidedunentzat  
bina sarrera

Frantzia, 24  
Gasteiz ARABA

[www.artium.org](http://www.artium.org)

4



## Dortokak lo egin nahi du

Roberto Aliaga & Alessandra Cimattoribus

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea  
Tafalla NAFARROA

[www.txalaparta.com](http://www.txalaparta.com)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2269. Argia)

### ONDARRE

• Jose Manuel Larrañaga Garmendia (Zumaia)

### EKAINBERRI

• Josu Aldama Larena (Bitoriano-Zuia)

• Miren Itziar Enbil (Deba)

• Maiteder de Suescun Gracia (Barakaldo)

### KUTXAGUNEA

• Kerman Rekondo Arzallus (Usurbil)

• Luis Mari Telleria Lezeta (Segura)

• Imanol Irigoien Aranberri (Oizartun)

• Edurne Lazkanoiturburu Manterola (Hondarribia)

### ESAIT

• Jose Anjel Iturzaeta Martija (Zarautz)

• Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)

• Leioako Udal Euskaltegia (Leioa)

• Maria Dolores Uriarte Ballarena (Barakaldo)

• Saioa Arando Lasagabaster (Aretxabaleta)

### ILLIMANI

• Maritxu Uria Agirre (Zarautz)

• Xabier Zendoia Aizpurua (Zumaia)

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com) • [www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)

# XABIER LETEREN OMENEZ

## ANTTON VALVERDE ERRAMUN MARTIKORENA PIER PAUL BERZAITZ ARANTXA IRAZUSTA PETTI OSKARBI JON BERGARETXE LARTAUN ABESBATZA

### MUSIKARIAK:

Karlos Gimenez, pianoa · Joxan Goikoetxea, eskusoinua-teklatura  
Txema Garces, gitarra baxoa · Xanet Arozena, gitarra  
Francisco Herrero, bibolina · Luis Fernandez, biolontxelo

**NON:** Oartzunen, Elorsoro Kirodegia  
**EGUNA:** APIRILAK 16 · Larunbata · 21,30etan  
**SARRERAK:** Aurretik 10 € · Egunean 12 €

**SALMENTA LEKUAK:** Oartzun ( Amazkar, Txokolategia, Kirodegia, Garmendia Okindegia, Miren taberna, Ganbara taberna).  
Irun (Hazia taberna), Hendaia (Kanttu ostatura), Lesaka (Arranoa), Olereta (Arkaitza eta Landare), Lezo (Tiñelu taberna),  
Donostia (Hontza eta Herria), Hernani (Garin eta Aralar), Tolosa (Raku taberna).

